



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (7/2013 esp., ARABAKO LANAK)

Laburpena:

TOCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, batzordeburua

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), adierazi bezala eratuta 2015eko azaroaren 11n eginiko bileran, ebazpen hau eman du Arabako Lanak 7/2013 espedientean.

I. AURREKARIAK

2. 2015eko urriaren 18an Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistroan sartu zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren (EHAEO) Arabako Ordezkaritzak aurkeztutako salaketa, hain zuzen, Arabako zenbait erakunde publikok, ustez, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak (LDL) debekatzen dituen jokabideak izateagatik¹.

Jokabide horiek, zehazki, Arabako Lanak SA foru-sozietate publikoari (hemendik aurrera, Arabako Lanak) eginiko kudeaketa-gomendioa erabiliz Arabako zenbait udalerritan, ustez, "proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko lehiaketak *de facto* kentzearekin" lotuta daude.

3. 2013ko abenduaren 17an, Ikerketa zuzendariak ebazpena eman zuen, eta horren bidez erabaki zen ezkutuko informazioari hasiera ematea gertaerak

¹ Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159 zk.), abenduaren 22ko 39/2010 Legea aldatzen duena (BOE-A-2010-19703); martxoaren 4ko 2/2011 Legea (BOE-A-2011-4117), eta ekainaren 4ko 3/2013 Legea (BOE-A-2013-5940); testu kontsolidatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946> (ebazpen honetan aipatutako webgune guztiak 2015eko azaroaren 11n kontsultatu dira azken aldiz).



sakonago ezagutzeko eta LDLaren (49.2 artikulua) arauak haustu izanaren zantzurik dagoen ikertzeko.

4. Ikerketa Zuzendaritzak, 2014ko martxoaren 17an, detektatutako jokabideen inguruko deskribapenaren ohar laburra igorri zion euskarrirako dokumentazioarekin batera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN), Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko 1/2002 Legeko 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Hala, horren bidez aditzera eman zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren eskumena dela².

2014ko martxoaren 27an, MLBNk ofizio bat igorri zuen, eta horren bidez jakinarazi zen, jasotako proposamenari jarraikiz, bidezkotzat jotzen zela Lehiaren Euskal Agintaritzari gaiaren berri ematea.

5. 2014ko martxoaren 31n, Ikerketa zuzendariak, LDLaren 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zehapen-espedientea abiaraztea erabaki zuen, LDLaren 1. eta/edo 3. artikulua hautsi zirelako zantzu sendoak daudelakoan.

Prozedura honako hauen kontra abiarazi zen:

Arabako Lanak SA; Arabako Foru Aldundia; Añanako Udala; Aramaioko Udala; Artziniegako Udala; Barrundiako Udala; Bastidako Udala; Guardiako Udala; Lapuebla de Labarcako Udala; Moreda Arabako Udala; Navaridasko Udala; Peñacerrada-Urizaharrako Udala; Samaniegoko Udala; Antoñanako Administrazio Batzarra; Argomanizko Administrazio Batzarra; Larrinbeko Administrazio Batzarra; Navarreteko Administrazio Batzarra; Olabarriko Administrazio Batzarra; Quintanilla de la Riberako Administrazio Batzarra; Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra; Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra.

Ebazpen horren arabera, espediente horren instruktoreak izendatu zituzten.

Era berean, ebazpen horrek espedientearen interesduntzat jo zituen bertan aurkatzen diren pertsona juridikoak, baita EHAEO eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (MLBN) ere.

6. 2014ko maiatzaren 21ean, espediente honen instruktoreak espedientea ireki zitzaienei informazioa eskatzeko probidentziak agindu zizkieten. Eskatutako informazioa 2014ko maiatzaren 29ren eta uztailaren 11ren artean jaso zen.

² Otsailaren 21eko 1/2002 Legea, estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa (2002ko otsailaren 22ko BOE, 46 zk.); abenduaren 30eko 62/2003 Legeak (BOE-A-2003-23936) eta uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (BOE-A-2007-12946) aldatzen dutena. Testu bategina <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2002-3590>.



2015eko apirilaren 29an, espediente honen instruktoreek probidentzia bat agindu zuten Arabako Lanak sozietateari informazioa eskatzeko. 2015eko maiatzaren 18an jaso zen eskatutako informazioa.

7. 2015eko ekainaren 9an, gertaerak zehazteko plegua igorri zen, eta interesdunei behar bezala jakinarazi zitzairen. Horiek 2015eko ekainaren 29 eta uztailaren 3 artean aurkeztu zituzten alegazioak.

Alegazio horien bidez, zenbait froga gauzatzeko eskatu zuten honako hauek: Aramaioko Udalak, Guardiako Udalak, Moreda Arabako Udalak, Navaridasko Udalak, Peñacerrada-Urizaharrako Udalak, Samaniegoko Udalak, Argomanizko Administrazio Batzarrak, Olabarriko Administrazio Batzarrak, Quintanilla de La Riberako Administrazio Batzarrak, Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarrak eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrak.

2015eko uztailaren 8an, probidentzia agindu zen, eta horren bidez erabaki zen interesdunek eskatutako probak gauzatzea. Ondorioz, udalek emandako agiriak sartu ziren espedientearen, eta informazioa eskatu zitzairen Aldundiari, Espainiako Arkitektoen Elkargoko Kontseilu Gorenari, EHAEoren Arabako ordezkariari eta Arabako Lanak SAri.

Era berean, prozedura hau ebazteko legez aurreikusitako gehienezko epearen zenbaketa etetea erabaki zen, zehazki, eskakizunak jakinarazten zirenetik hartzaileek benetan betetzen zituzten arte igarotako denboran.

Froga eskakizunak 2015eko uztailaren 13an jakinarazi ziren. Egun hauetan bete ziren eskakizunak: 2015eko uztailaren 27an (EHAEoren Arabako Ordezkaritzak), 2015eko abuztuaren 4an (Espainiako Arkitektoen Elkargoko Kontseilu Gorenak eta Arabako Lanak), 2015eko abuztuaren 14an (Aldundiak) eta 2015eko abuztuaren 26an (Aldundiak). Hala, prozedura etenda geratu zen 2015eko uztailaren 13tik eta 2015eko abuztuaren 26ra bitartean.

8. 2015eko abuztuaren 27an, instrukzioaren fasea ixteko probidentzia agindu zen, ebazpen-proposamena idazteko asmoz, Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren (LDE) 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz³. Era berean, prozedura hau ebazteko gehienezko epearen etetea kentzea erabaki zen, eta data berria jakinarazi zen: 2015eko azaroaren 13a.

9. 2015eko azaroaren 4an, administrazio-espedientea igorri zitzaion Lehiaren Euskal Kontseiluari (LEK), zegokion ebazpen-proposamenarekin eta txosten

³ Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua (2008ko otsailaren 27ko BOE, 50. zk.)



batekin batera. Txosten horretan adierazten denez, zenbait erakundek (Arabako Lanak, Arabako Foru Aldundia, Aramaioko Udala, Artziniegako Udala, Barrundiako Udala, Bastidako Udala, Guardiako Udala, Moreda de Arabako Udala, Navaridasko Udala, Peñacerrada-Urizaharrako Udala, Samaniegoko Udala, Argomanizko Administrazio Batzarra, Olabarriko Administrazio Batzarra, Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarrak Santikurutzeko Administrazio Batzarra eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala) alegazioak aurkeztu dituzte ebazpen-proposamenaren aurka –alabaina, berau indargabetu gabe, eta, beraz, bertan adierazitakoa errepikatuta–.

Hala ere, ebazpen-proposamenean detektatutako akats materiala (formakoa) zuzentzea eskatu dute instruktoerek. Honako hau dioen lekuan:

«Guardiako Udalari dagokionez, "Guardiako (Araba) hirigune historikoan zoladurak eta azpiegiturak jartzeko proiektuaren 2. fasea" proiektua idazteko, obrak egiteko eta zuzentzeko eta behar bezala egiteko beharrezkoak diren lanak kontratatzeko 2013ko urriaren 22an eginiko gomendioari dagokion erantzukizuna iraungitatzat jotzen da».

Hau esan behar du:

«Guardiako Udalari dagokionez, iraungitatzat jotzen da 2010eko azaroaren 4an eginiko gomendia, hain zuzen, "Guardiako futbol-zelaia egokitzeko proiektuaren 2. fasea" proiektua idazteko eta obrak egiteko eta zuzentzeko gomendia.

Era berean adierazi dute Guardiako Udalak, Moreda Arabako Udalak, Ayuntamiento de Navaridas, Peñacerrada-Urizaharrako Udalak Samaniegoko Udalak, Argomanizko Administrazio Batzarrak, Olabarriko Administrazio Batzarrak, Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarrak eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrak LEKen frogak aurkeztea eskatu dutela.

II. ESPEDIENTEAN DAUDEN ERAKUNDEEN DESKRIBAPENA

10. Arabako Lanak SA merkataritza-sozietatea da, eta Gasteizen du egoitza. Diputatuen Kontseiluak 1998ko azaroaren 10ean hartutako 816 zenbakiko akordioaren bidez sortu zen pertsona bakarreko sozietate anonimo gisa (SAU), 15/1987 Foru Araua eta 36/1998 Foru Arauaren 6. Xedapen Gehigarria aintzat hartuta⁴.

⁴ 816/1998 Akordioa, Diputatuen Kontseiluarena, azaroaren 10ekoa, "Arabako Lanak SA" sozietate anonimoa eratzea eta indarrean egongo diren estatutuak egitea onartzen duena, Administrazio Kontseiluko kideen kopurua izendatuta eta haren eraketa zehaztuta (1999ko otsailaren 17ko ALHAO, 19. zk.); 15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, ekonomia-jardueren eta foru-zerbitzu publikoaren kudeaketari buruzkoa (1987ko azaroaren 11ko ALHAO, 133 zk.); eta 36/1998 Foru Araua, abenduaren 17koa, 1999. urterako Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Betearazpenari buruzkoa (1998ko abenduaren 30eko ALHAO, 149. zk.).



Xede soziala da merkatuan nahiz operadore pribatuen bidez ematen diren lan publikoekin loturiko askotariko zerbitzuak ematea –2012ko azaroaren 8an akziodunek eginiko Batzar Orokorraren bileran onartutako estatutuen 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz–.

Estutuen bidez bi organo sortu dira: Akziodunen Batzar Orokorra –akziodun guztiek osatzen dute, akziodun bakar baten botorik mugatu gabe– eta Administrazio Kontseilua –Aksziodunen Batzar Orokorrak aukeratutako eta presidenteak eta 6 sailburuk osatzen dutena–.

Presidenteak, estatutuen arabera, Arabako Lanak atxikita dagoen Saileko foru diputatua da. Era berean, Administrazio-kontseiluko kide guztiak aldundiko kargu publikoak dira⁵.

11. Arabako Foru Aldundia Arabako Lanak sozietatearen 9.956 akzioren titularra da. Horietatik, 9.500 akzio A motakoak dira, eta 476, berriz, B motakoak.

12. Añanako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Aramaioko Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; eta Artziniegako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko ekainaren 5az geroztik. Ez zen Arabako Lanak sozietatearen akzioduna, kudeaketa-gomendio bat egin zionean 2009ko uztailaren 2an; Barrundiako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Bastidako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Guardiako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Lapuebla de Labarcako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko ekainaren 4az geroztik; Moreda Arabako Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Navaridasko Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Peñacerrada-Urizaharreko Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Samaniegoko Udala Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Antoñanako Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten

⁵ Presidenteak: Toki Administrazioko foru-diputatua; kontseilaria: Ekonomia Sustapeneko eta Foru Administrazioko foru-diputatua; kontseilaria: Herri Lan eta Garraioen foru-diputatua; kontseilaria: Ogasun, Finantza eta Aurrekontu foru-diputatua; kontseilaria: Tokiko inbertsioen eta suteen prebentzio eta itzaltzeen zuzendaria; kontseilaria: Ingurumen eta Hirigintza foru-diputatua; kontseilaria: Finantza eta Aurrekontu zuzendaria.



titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Argomanizko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Larrinbeko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Navarreteko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko ekainaren 20az geroztik. Ez zen Arabako Lanak sozietatearen akzioduna 2009ko azaroaren 25ean kudeaketa-gomendio bat egin zionean; Olaberriko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko uztailaren 22az geroztik; Quintanilla de La Riberako Administrazio Batzarra ez da Arabako Lanak sozietatearen akzioduna; Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik; Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra Arabako Lanak sozietatearen akzio baten titularra da 2013ko martxoaren 15az geroztik.

III. FROGATUTAKO GERTAKARIAK

13. 2012ko azaroaren 13an, Arabako Foru Aldundiak 574/2012 Erabakia hartu zuen "Arabako Foru Aldundiak Arabako Lanak SA sozietate publikoan dituen akzio jakin batzuen titulartasuna Lurraldeko Tokiko Erakundeei (hala eskatzen dutenei) ematea baimentzeko".

Honako hau ezartzen zuen 574/2012 Erabakiak:

"Arabako Foru Aldundiak prozesu bat abiarazi du bere partaidetza duten hainbat sozietate publiko berrantolatzeko, hartara, bizi dugun testuinguru ekonomikoan, egitura horiek optimizatu ahal izateko –egiturok sinplifikatuta–, eta, horrekin batera, giza baliabideak eta baliabide materialak batera erabiltzearen ondorioz eskalako ekonomiak erdiesteko, hala, aurrezpena lortzeko eta gauzatzen dituzten ekintzetan eraginkortasun handiagoa eta hobe izateko.

Ezinbestekoa da, eta begi-bistakoa interes publikoari begira, testuinguru ekonomiko horretan administrazio publikoak aplikatzea –eta, zehazki, gureak– aurrezteko eta eraginkortasunerako neurri guztiak gauzatzean.

Helburu hori lortzeko, sozietate hauekin osatutako talde bat eratu da erabat bateratu baino lehen eman beharreko urrats gisa: Arabako Lanak SAU, Araba-Aranbarri Eraikuntzaren Kultura Ondarearen Kudeaketarako sozietate anonimoa eta Araba Uraren Agentzia SA. Arabako Lanak SAU da sozietate horien nagusi.

Sozietate mota hauek sortzea merkataritza-tresna ezin hobe da, bai sozietate horien giza baliabideak eta baliabide materialak bateratzeko, bai Arabarri nahiz Araba Uraren Agentzia desegiteko eta likidatzeko emandako aginduaren aurretiko urrats gisa, horien jarduera Arabako Lanak SAUn bildu ondoren.



Horretarako, Arabako Foru Aldundiak Arabarrin (% 55,90) eta Araba Uraren Agentzia SAn (% 100) zituen akzioak saldu zizkion Arabako Lanak SAUri, lehengo bi horiek desegin eta likidatu aurretiko urrats gisa.

Era berean, bi sozietateetako langileak Arabako Lanak SAUra bideratu dira, eta azken horren estatutu sozialak erreformatu egin dira xede sozialean horien helburuak eta eginkizunak jasotzeko.

Bateratzeko prozesu horri dagokionez, Arabako Lanak SAUk birgaikuntzaren hirigintza-sozietate gisa Arabarrin egiten zuen jarduerarekin jarraitzeko, beharrezkoa da Arabarrin kapital soziala osatzen duten hamazortzi udalek Arabako Lanak SAUren kapital sozialean parte hartzea.

Udal horiek Arabako Lanak SAUren kapital sozialean sartzeari esker, Arabako Lanak SAU udal horiek birgaitzeko hirigintza-sozietate bihurtzeaz gain berezko bitartekotzat eta horien zerbitzu teknikotzat jotzen da.

Kapital sozial hori osatzen duten udalen berezko bitarteko gisa, udal horiek sozietateari eskatu ahal izango diote zuzenean egin ditzala obrak, zerbitzuak, hornidurak eta, oro har, Arabako Lanak SAUren estatutu sozialean jasotako artean dagoen edozein ekintza. Horretarako, langileen egitura eta horien baliabideak erabiliko dituzte.

Arabako Foru Aldundiak uste du erabat komenigarria dela Arabarrin akzioak osatzen dituzten udal guztiez gain, lurraldeko gainerako toki-erakundeek ere parte hartzea Arabako Lanak SAUren kapital sozialean, betiere hala nahi badute.

Hau da, kapital horretan sartzean, Arabako Lanak SAU berezko bitartekotzat har dezakete, eta lurraldeko toki-erakunde guztietara zabal ditzakete sozietatearen bitarteko materialak eta pertsonalak gomendioak egiteko.

Arabako Lanak SAUren akziodun izateko, nahikoa da toki-erakunde bakoitzak haren kapitalaren akzio bat izatea –kapital-portzentajea gorabehera–, sozietatea bertako akziodunen berezko bitartekotzat jotzeko.

Gainera, bai arrazoi operatiboengatik, bai Arabako Foru Aldundiak sozietatearen akziodun nagusi izateagatik, Arabako Foru Aldundiak soilik izango du sozietatearen funtzionamendurako kasuan kasu beharrezkoak diren bazkideen noizbehinkako ekarpenak finantzatzeko ardura.

Azken batean, eta helburu horiek lortzeko, 10.000 akzio berri sortu dira, kapital soziala areagotu gabe, ordura arteko akzioen balio nominala milarekin zatituta lortutako emaitza oinarri hartuta. 10.000 akzio berri horietatik, 9.500 Arabako Foru Aldundiaren esku geratuko dira beti (A motako akzioak); eta arruntak izango dira. Gainerako 500 akzioak (B motako akzioak) hala nahi duten toki-erakundeetara bideratuko dira, eta galera sozialean ez parte hartzeko pribilegioa izango dute, lehen aipatu bezala.

Jardunbidearen erabilgarritasun publikoa agerikoa denez, emakida-kontratuaren bidez doan besterentzea izango da aukerarik egokiena, Arabako Lurralde Historikoko Ondareari buruzko otsailaren 23ko 5/98 Foru Arauaren 49. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik (1998ko martxoaren 6ko ALHAO, 28. zk.). Hala, aipatu 49. artikuluan 4. zenbakia honako hau ezartzen du: "Diputatuen Kontseiluak eta Foru Ogasuneko Saileko foru-diputatu titularrak erabaki ahal izango dute, Foru Arau honen 44.2 artikuluan hurrenez hurren ezarritako muga kuantitatiboaren baitan, ondasun



higikorrek eta eskubideak Administrazio Publikoei edo irabazi asmorik gabeko erakundeei doan besterentzea."

Horren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru-diputatuak eta Toki Administrazioako foru-diputatuak elkarrekin proposatuta eta aurretiaz, adierazitako egunean, Diputatuen Kontseiluak eginiko bileran horren gainean eztabaidatuta.

AKORDIOA

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lanak SAUren kapital sozialaren B motako akzioak besterentzeari, doan emateko Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeei, betiere hala eskatzen badute.

Bigarrena. Toki-erakunde eskatzaileek, horretarako, Toki Administrazioako Sailera jo beharko dute, akzio horien emakidadun izatea eskatzeko eta Akordio honen eranskin gisa jaso den akzioen emakida-kontratua sinatzeko.

Hirugarrena. Tokiko Administrazioako foru-diputatuari erraztasunak ematea, Arabako Lanak SAUren akziodunen artean Arabako Foru Aldundiko ordezkaria den heinean, emakida-kontratu horiek sinatzeko eta dohaintzan emandako tituluak eraginkortasun osoz emateko legez beharrezkoak diren beste egintza egiteko eta Diputatuen Kontseiluak hartutako erabaki honetatik eta horri erantsitako dokumentaziotik sor daitekeen beste edozein gauzatzeko.

Laugarrena. Emandako akzioak Arabako Foru Aldundiari itzultzea, betiere emakidadunak besterendu, pignoratu edo erabili baditu beste edozein berme-formula erabiliz, aurretiaz horren berri izan gabe eta Arabako Foru Aldundiak berariaz baimendu gabe.

Bosgarrena. Tokiko Administrazio Sailak Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako Ondare Zerbitzuari igortzea aurretiaz adierazitako moduan sinatutako dokumentu guztiak, Arabako Foru Aldundiko Ondasun eta Eskubideen Inbentarioan dagozkion oharrak jasotzeko.

Arabako Lanak sozietatearen kapital soziala (60.101,21 €), beraz, 10.000 akziotan banatu dira, bakoitza 6,010121 €-koa. Bi motatako akzioak daude:

- A motakoak (9.500 akzio), berariaz Aldundiaren jabetzakoak;
- B motakoak (500 akzio) —galera sozialetan parte hartzen ez dutenak— akziodun izan nahi duten toki-erakundeetara bideratuta. Gaur egun, 44 erakundek hartu dute akzio horietako bat; beraz, Aldundia mota hauetako 456 akzioen titularra da.

14. Arabako Lanak sozietatearen akziodunak honako hauek dira (akzioak noiz erosi diren jaso da):



Akzioak noiz erosi diren	Akziodunak
1998/12/11	Arabako Foru Aldundia
2013/03/15	Aldako Administrazio Batzarra; Alegria-Dulantziko Udala; Añanako Udala; Aramaioko Udala; Arespalditzako Administrazio Batzarra; Argomanizko Administrazio Batzarra; Arraia-Maeztuko Udala; Barrundiako Udala; Berantevillako Administrazio Batzarra; Berantevillako Udala; Bernedoko Udala; Kanpezuko Udala; Eltziegoko Udala; Elosuko Administrazio Batzarra; Bilarko Udala; Haranako Udala; Kontrastako Administrazio Batzarra; Bastidako Udala; Lagrango Udala; Guardiako Udala; Lantziegoko Udala; Larrinbeko Administrazio Batzarra; Lozako Administrazio Batzarra; Moreda Arabako Udala; Navaridasko Udala; Oiongo Udala; Peñacerrada-Urizaharrako Udala; Aguraingo Udala; Samaniegoko Udala; Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra; Done Bikendi Haranako Administrazio Batzarra; Santikurutzeko Administrazio Batzarra; Trokonizko Administrazio Batzarra; Ullibarri-Aranako Administrazio Batzarra.
2013/03/27	Orbisoko Administrazio Batzarra
2013/04/10	Antoñanako Administrazio Batzarra
2013/04/22	Kripango Udala
2013/05/17	Barriobustoko Administrazio Batzarra
2013/05/17	Legutioko Udala
2013/06/04	Lapuebla de Labarcako Udala
2013/06/05	Artziniegako Udala
2013/06/20	Markinezko Administrazio Batzarra; Navarreteko Administrazio Batzarra
2013/07/22	Olabarriko Administrazio Batzarra

Aldundiak eskaintako aukera onartu zuten 44 toki-erakunde horiek akzio bakarra dute, hau da, kapital sozialaren % 0,01. **Beraz, toki-erakunde akziodunek guztira 44 akzio dituzte, hau da, kapital sozialaren % 0,44.**

15. Hona hemen udalek eta administrazio-batzarrek (akziodun izan edo ez) Arabako Lanak sozietateari espediente hau abiarazi arte eginiko kudeaketa-gomendioak:

zk.	Eguna	Gomendio-emailea	Gomendioa	Esleitutako zenbatekoa**
1	2009/07/02	Artziniegako Udala	Artziniegako Erdiko kaleko urbanizazioa.	1.336.824,61 €
2	2009/11/25	Navarreteko Administrazio Batzarra	Azpiegiturak eta zoladura berritzea. Navarreteko I. eta II. faseak	1.501.824,29 €
3	2010/09/12	Quintanilla de la Sierrako Administrazio Batzarra	Azpiegiturak eta zoladura berritzea. Quintanilla de la Riberako I. eta II. faseak	710.757,75 €
4	2010/11/04	Guardiako Udala	Guardiako futbol-zelaia egokitzeko lanak, bigarren faseak	149.806,36 €
5	2012/05/09	Lapuebla de Labarcako Udala	Saneamendu-sarea lotzea ikastolatik Lapuebla de Labarcako etorbideraino	77.059,76 €
6	2013/06/03	Samaniegoko Udala	Samaniegoko Udalaren irisgarritasuna hobetzea	49.864,17 €
7	2013/06/08	Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra	Durruma Kanpezun 8 biztanlerako araztegi-sistema instalatzea	22.245,00 €



8	2013/06/13	Bastidako Udala	Bastidako Otero auzoko azpiegiturak eta zoladurak berritzea	813.097,83 €
9	2013/06/20	Barrundiako Udaletik	Ozaetako Arrieta Jauregiko plaza urbanizatzea	97.029,69 €
10	2013/06/20	Antoñanako Administrazio Batzarra	Antoñanako iparraldeko harresiaren II. tartea eraberritzea eta ingurua urbanizatzea	132.820,37 €
11	2013/06/20	Lapuebla de Labarcako Udala	Lapuebla de Labarcako María Cruz Sáenz Díaz kaleko eta Berria kaleko azpiegiturak berritzea eta zolaztea	1.140.189,59 €
12	2013/07/19	Argomaizko Administrazio Batzarra	Argomanizko hornidura-sarea hobetzea	39.289,63 €
13	2013/07/19	Moreda Arabako Udala	Moreda Arabako Planilla kaleko azpiegiturak berritzea eta zolaztea	317.737,81 €
14	2013/07/19	Peñacerrada-Urizaharreko Udala	Aire zabaleko aparkalekua egitea Peñacerradan	159.437,67 €
15	2013/07/30	Aramaioko Udala	Azkoaga-Aramaio auzoaren inguruko saneamendu-sarea berritzea	218.170,30 €
16	2013/09/06	Olabarriko Administrazio Batzarra	Olabarriko erdiguneko hiri-azpiegiturak zaharberitzea	1.802.973,77 €
17	2013/09/17	Larrinbeko Administrazio Batzarra	Larrinbeko Saratxo eta San Mamés auzoak lotzeko bidea zolaztea	207.801,54 €
Santikurutze Kanpezuko Santa Elena kaleko azpiegiturak berritzea eta zoladura jartzea	2013/10/22	Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra		455.068,46 €
19	2013/10/22	Guardiako Udala	Guardiako hirigune historikoan zoladura eta azpiegiturak jartzea	1.248.042,38 €
20	2013/10/22	Añanako Udala	Aire zabaleko aparkalekua jartzea Gesaltza Añanan	279.665,41 €
21	2013/11/26	Navaridasko Udala	Navaridasko Tesoro kalean izandako bigarren hondoratzearen premiazko konponketak eta sarbide-lanak egitea	15.026,99 €
* Gomendioaren identifikazio-zenbakia, ebazpen honen ondoreetarako.				
** Espedientearen alde batek eginiko alegazioak onartuta, zehaztu egin behar da benetan egindako obregatik ziurtatutako zenbatekoaren % 6 dela espedientearen; hau da, esleitutako zenbatekoaren % 6 (taula honetan jaso da).				

4. 5., 6., 7., 9., 11., 12., 13., 14., 17., 18. eta 19. zenbakiekin identifikatutako gomendioetan —hau da, aztertutako 21etatik 12— udalek eta administrazio batzarrek Arabako Lanak sozietateari agindu zioten **lan posible guztiak** egin zitzala (eraikuntza-proiektua egitea; lizitazioa prestatzea; obrak kontratatzea; obren eskumeneko zuzendaritza eta osasun eta segurtasunaren koordinazioa eta egindako gomendioa ondo gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitea).

1. 2., 3., 10., 15., 16., 20. eta 21. zenbakiekin identifikatutako gomendioetan —hau da, guztira 8— lizitazioa prestatzeko lanak; obren kontratazioa; obren eskumeneko zuzendaritza eta osasun eta segurtasunaren koordinazioa eta



egindako gomendioa ondo gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitea besterik ez zuten sartu. Hau da, **ez zuten sartu eraikitze proiektua idaztea.**

8 zenbakiko gomendioan, eraikuntza-proiektuaren idazketa besterik ez zen sartu. **Beraz, ez ziren sartu honako hauek: lizitazioaren prestakuntza, obren kontratazioa, segurtasun- eta osasun-koordinazioa eta egindako gomendioa ondo gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketak.**

16. "Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Lanak SAUren arteko hitzarmen orokorrak", 2012ko abenduaren 12koak, honako hau ezarri du⁶:

VIII.- Arabako Lanak SAUren USTIAKETA KONTUA

Gomendioak obren kontratazioa barne hartzen badu, Arabako Lanak SAK diru-sarrera propio gisa zenbatu **ahal izango du** kasuan kasu agindutako obraren ordainketari dagokion ziurtagiri edo agiri bakoitzaren **ehuneko** 6, finantza kosturik eta BEZik gabe. Modu horretan lortutako zenbatekoaren bidez, gomendioaren exekuzio-gastuak finantzatu ahal izango dira; besteak beste, laguntza teknikoak, laneko kontrol-, segurtasun- eta osasun-azterlanak, azterlan geologikoak, ingurumenekoak eta abar. Halaber, obren zuzendariak agintzen dituen egiaztatze-gastuak eta obrako material eta unitateen saiakuntza-lanak finantzatzeko balioko du. Saiakuntza horiek kontratistak egiten dituen barne-kontrol eta -ekoizpenetatik bereizita egongo dira. Ondoriozko emaitza Arabako Lanak SAK fakturatuko dio obren esleipendun suertatu den kontratistari, eta esleipena eman eta hogeita hamar egunen buruan ordaindu beharko da banku-transferentziaren bidez.

Toki-erakundeek Arabako Lanak sozietateari agindutako kudeaketa-gomendioak (Bastidako kasu berezia izan ezik, aurrerago ordainduko da eta) erakunde honen diru-sarrera gisa jasotzen dute obragatik ziurtatu den kostuaren % 6, erabat egindako lanak alde batera utzita⁷. Ehuneko hori ez da aldatzen, Arabako Lanak gomendio bakoitzean eginiko lanak edozein izanik ere.

17. Beste alde batetik, Arabako eraikuntzen kultura-ondarea kontserbatzea xede duten jarduketak diruz laguntzeko eta sustatzeko diru-laguntzei buruzko Arauak, Arabako Lanak sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2013ko otsailaren 26an onetsitakoak, honako hau ezartzen du 17. eta 24. artikuluetan:

17. artikulua. Beste laguntza batzuekin bateragarria izatea. Arabako Lanak SAren partaidetza

⁶ Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Lanak SAUren arteko lankidetzaren hitzarmena, 2013ko urtarrilaren 4koa (ALHAO 2. zk.)

⁷ Obraren kostu osotzat jotzen da gomendioaren xede den obraren ordainketari dagokion ziurtagiri edo dokumentu bakoitzaren batura, BEZik gabe.



Laguntza hauek bateragarriak izango dira arrazoi berdinegatik edo antzekoengatik beste administrazio publiko batzuetatik jaso ditzaketan laguntzekin. Hala, jasotako laguntza guztiek ezingo dute inola ere jarduketaren kostu osoa gainditu. Emandako laguntza guztien baturak jarduketaren kostu osoa gaindituko balute, Arabako Lanak SAK emandako laguntza murriztu egingo litzateke indarrean dagoen sektoreko araudian ezarritakoaren arabera.

Era berean, laguntza horiek ez dira bateragarriak izango Arabako Lanak SAK edo Sociedad Anónima para la Gestión del Patrimonio Cultural Edificado de Álava SAK (Arabarri) jarduera berbererako emandako beste batzuekin, salbu eta ekitaldi ezberdinetan gauzatzen diren beste fase batzuk badira.

Arabako Lanak SAK edo harekin hitzarmena duen beste edozein sozietate publikok beharrezkoak diren baliabide materialak edo giza baliabideak dituzten kasuetan, Kudeaketa Sozietate horrek ezingo du agindu proiektu eta/edo dokumentu teknikoak idazteko, obrak egiteko edo kontratatzeke edota horren zuzendaritza teknikoak kontratatzeke iturriak jasotzeko agindu.

24. artikulua.- Memoriak idaztea eta bestelako dokumentu teknikoak. Obren lizitazioa, kontratazioa eta zuzendaritza.

Halaber, eta aurretiaz kasuan kasuko kudeaketa-gomendioak eginda, Arabako Lanak SA edo harekin hitzarmena duen beste sozietate bat arduratuko da diruz lagundutako obrak lizitatu, kontratatu eta zuzentzeaz.

Diru-laguntzaren eskaerarekin batera dagoeneko lizitazio, kontratazio eta zuzendaritzarako eskaera erantsiko balitz, diruz lagundutakoak izatekotan –Arabako Lanak SAK edo harekin hitzarmena duen beste sozietate publiko batek– egindakoak badira, eskaerak zuzenean gehienezko puntuazioa lortuko du "Bideragarritasun teknikoa" atalean; izan ere, ikuspuntu teknikotik ulertuko da jarduketa horien gomendioa dela exekuziorako konponbide egokiena.

Diru-laguntza hori emanda, gomendioa egingo ez balitz, diru-laguntza baliogabetu egingo litzateke.

Arauren testutik bertatik ondorioztatzen da, beraz, Arabako Lanak sozietateak esku hartzen dituen obretarako abantaila dakarrela Arabako eraikuntzaren kultura-ondarea kontserbatzeko emandako diru-laguntzak eskuratzeko. Egindako obretan bitartekaritza arituz "bideragarritasun teknikoa" atalean gehienezko puntuazioa ematean, horiek gauzatu behar dituztenak erakunde horrekin zerbitzuak kontratatzearen alde jartzen ditu.

IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

1. Tipikotasuna

A. Lehiaren aurkako akordioa egotea

18. LDLaren 1.1 artikulua honako hau ezartzen du:



Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta:

- a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.
- b) Produkzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.
- c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.
- d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.
- e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zer ikusirik kontratuen helburuarekin.

19. Egindako instrukziotik ondorioztatzen da akordio bat dagoela Aldundiaren eta lurralde honen hainbat toki-erakunderen artean.

Akordio horrek dakar lehenengoak bigarrenei lagatzea Arabako Lanak euren sozietatearen zenbait akzioen titulartasuna, proiektuak idazteko, obren eskumeneko zuzendaritzarako eta toki-erakundeek egin beharreko segurtasun- eta osasun-koordinazioaren lanak egiteko kudeaketa-gomendioaren figura erabiltzeko asmoz.

Aldundiak 500 akzio gordetzen ditu "sozietatearen toki-erakunde guztiei" Arabako Lanak sozietateari zerbitzu horiek gauzatzeko aukera emateko "langileen eta horien baliabideen egitura baliatuz".

Akordioa sinatzeko interesa duten toki-erakundeek eskuratutako akzioek ez dute esku hartzen enpresa publikoaren galeretan.

44 akzio Arabako toki-erakundeek eskuratzen dituzte.

Akordioaren **xedea da** merkatu pribatutik **kentzea** eraikuntza-proiektua idazteko (1), lizitazioa prestatzeko (2), obren eskumeneko zuzendaritza egiteko (3), segurtasuna eta osasuna koordinatzeko eta egindako gomendia ondo gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen kudeaketak.

Aldundiak abiarazitako akordioa Arabako toki-erakunde guztietara irekita dago. Praktikan, Aldundiaren eskaintza onartu duten 44 toki-erakundetara mugatuta ditu ondorioak.



20. Lehia mugatzea xede duten erabakien kasuetan jokabidea kalifikatu ahal izateko ez da eskatzen merkatuan martxan jartzeak dituen benetako ondorioen frogarik⁸.

Europako jurisprudentziak hau adierazi du horrekin lotuta⁹:

"gogorarazi behar da, aipatutako jurisprudentziaren arabera, TFUEren 101 artikulua aplikatzeko, akordio baten ondorio zehatzen haztapena ez funtsezkoa da horien helburua denean lehiaren jokoa eragozte, mugatzea edo faltsutzea (...).

Horri dagokionez, Justizia Auzitegiak aitortu du «xedearen arau-hausteak» eta «ondorioen arau-hausteak» kontzeptuen arteko ezberdintasuna da enpresen arteko kolusio-modu jakin batzuk, berezko izaeragatik, kaltegarritzat jo daitezkeela lehiaren joko arruntaren funtzionamendu egokirako (...).

Horrenbestez, aintzat hartu behar da estatu kideen arteko merkataritzan eragin dezakeela eta lehiak berez duen kontrako xedea duela, ondorio jakinak alde batera utzita; hau da, lehiaren jokoarekiko muga nabarmena du".

Era berean, Auzitegi Nagusiak honako hau baieztatu du¹⁰:

"Jokabidearekin lotuta egileak eginiko alegazioei dagokienez, ez zuen eragin kaltegarrikerik ekarri merkatuan, ez baitzuen eraginik izan ez prezioetan ez merkatuaren banaketan, ezta, azkenik, zehapena jaso duten enpresek merkatuaren ahalmena mantendu, hobetu edo areagotzen duten enpresetan ere. Nahikoa da bi gauza aipatzearekin. Lehenik eta behin, Lehiaren Defentsari buruzko 1. artikuluan jasotako jokabideen zehapenetan ez da beharrezkoa ondorio horiek sortu izana, nahikoa baita jokabide horiek gertatzeko aukera egotearekin, argudio horiek aztertu behar izatearekin saihestu egingo lirakeke-eta".

Merkatutik zenbait zerbitzuren prestazioa kentzea xede duen akordioak, funtsean eta berez, lehia murrizten du, eta, beraz, **kalifikatzeko** ez da beharrezkoa merkatuan ondorio jakin horiek izan dituen egiaztatzea (kontuan hartuko lirakeke, hala badagokio, zehapenaren zenbatekoa zehazteko).

⁸ MLBNren ebazpenak: 2014ko ekainaren 18koa, S/0469/13 esp., paper eta kartoi izurtuaren fabrikatzaileak; 2014ko irailaren 22koa, S/428/12 esp., paletak; 2014ko urriaren 29koa, S/0422/12, iraunkortasun-kontratuak; 2014ko abenduaren 4koa, S/0453/12 esp., trenbide-errodamenduak.

⁹ EBJAren epaia, 2012ko abenduaren 13koa, bildutakoaren eta beste batzuen kontra abiarazitako espediente, C-226/11. Ikusi, halaber, Justizia Auzitegiaren epaiak: 1996ko uztailaren 13koa, Consten eta Grundig/Comisión, 56/64 eta 58/64; 1990eko urtarrilaren 11koa Sandoz prodotti farmaceutici/Comision, C-277/8, 2008ko azaroaren 20koa, Beef Industry Development Society eta Barry Brothers, C-209/07; 2009ko ekainaren 4koa, T-Mobile Netherlands eta beste batzuk, C-8/08; 2011ko abenduaren 8koa, KME Germany eta beste batzuk/Comisión, C-389/10.

¹⁰ 8357/2007 AGE, 2007ko abenduaren 18koa.



a. Subjektuen izaera

21. LDLaren laugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

1. Lege honetan aurreikusitakoetarako, ondorengo izango da enpresa: jarduera ekonomiko bat burutzen duen edozein pertsona edo erakunde, erakunde horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere.

Ez dago inolako zalantzarik Arabako Lanak (sozietate publiko honek zuzenbide pribatuaren mende dagoen merkatu gisa jarduten du) enpresa izaeraren edo operadore ekonomikoaren inguruan.

Espediente honen xede diren administrazioen operadore ekonomikoaren izaera aztertu behar da.

Horri dagokionez, Auzitegi Nagusiak hainbat alditan nabarmendu du Administrazio Publikoak lehiaren defentsarako araudiaren eta horren inguruan eginiko gogoetaren erabat mende dago; beraz, operadore ekonomikoa den heinean, honako hau adierazi du¹¹:

Administrazio publikoak lehiatzeko eskubidetik kanpo geratzeko bazterketa partziala kontuan hartuta, administrazio publiko gisa jarduten dutenean, baieztatu egin behar da bat datozela araudi horrekin, eta ezin zaio eragozpenik jarriko Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 10. artikuluan idatzitakoari, Lehiatzeko Defentsa Auzitegiak esaten duen moduan. Horrenbestez, **agindu honetan agente ekonomikoak aipatzen badira ere, ez da ulertu behar eskubide pribatukoak (eta ez administrazio-eskubidearenak) diren agenteak horrekin bat badatoz soilik jar daitezkeela isunak, merkatuan jarduten duen edozein subjekturi ezarri ahalko zaizkio-eta, baita administrazio publikoak edo mota horretako erakunde eta sozietateak neurri handi edo txikiagoan administrazio-eskubidearen mende daudenean ere.** Ildo horretan, dagoeneko aipatu den Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera kodemandatutako sozietatea publizitatearen eta lehiaren printzipioen mende badago eta jarduketa administrazio-zuzenbidearen zati batean dagoela ulertu behar bada, horrek ez du kentzen kanpoko jarduera epaitzea, edozein kasutan, lehia defendatzeko araudia oinarri hartuta.

Kasu honetan, toki-erakundeek erabakiko dute zerbitzu ekonomiko batzuk sozietate publiko jakin bati (Aldundiaren berezko bitartekoa) agintzea ahalbidetzen duen akordioan parte hartzea. Erabaki horrek eragina izango du merkatuan, zehazki: (1) eraikuntza-proiektua egitea, (2) lizitazioa prestatzea (3) obren eskumeneko zuzendaritza, (4) osasun eta segurtasunaren koordinazioa eta egindako gomendioa ondo gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitea. Are gehiago, egindako gomendioak merkatutik atera dira.

Aldundiak parte hartu du, erakunde titular eskusibo gisa, Arabako Lanak sozietatearen 9.500 akzioetan. Akzio horiek, edozein kasutan, enpresa

¹¹ 4763/2007 AGE, 2007ko ekainaren 19koa.



publikoaren galeretan oinarrituta dago. Gainera, erabaki du Arabako toki-erakundeei gehenez ere 500 akzio ematea, sozietate publikoek agindu dezaten aurretiaz adierazitako zerbitzuak egiteko, eta, hala, horien demandaren merkatutik kentzeko. Akordioak aldatu egiten ditu zerbitzuen eskaeraren funtzionamendurako baldintza arruntak. Toki-erakundeen eskaera enpresa publikora bideratzen ditu, eta horretarako merkatu pribatutik aldentzen den merkatua ezartzen du.

Hori dela eta, ondorioztatu behar da Aldundiak eta toki-erakundeek operadore ekonomiko gisa –zerbitzuen eskatzaile gisa– jardun dutela lehiaren araudia aplikatzeko ondorioetarako.

22. Aurreko ondorioa kontraesanean dago espedientearen barnean dauden zenbaitek eginiko alegazioarekin. Horren arabera, LEAk ez luke eskumenik izango Administrazio Publiko batek agindutako egintzak aztertzeko. Alegazio honen arabera, LEAk –ezadostasunik badago– irekita izango luke aurkaratzeko bidea, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen (LEAL) 3. artikuluko 4. zenbakian aurreikusitako dagoen bezala)¹².

Artikulu horrek esan nahi du LDLaren 1, 2 edo 3 artikuluetan sartuta ez dauden egintzen aurka egiten dela. Beste kasuetan, LEAk martxan jarri behar ditu LEALen 3. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako zehatzeko eskumenak:

Lehiaren Euskal Agintaritzak abiarazi, bideratu eta ebatziko ditu lehiaren jokabide murrizteak ezartzea xede duten zehapen-prozedurak; besteak beste, kolusiozko jokabideak, kokaleku nagusiaren eta lehia askearen faltsutzearen gehiegikeria interes publikoan eragina duten egintza desleialengatik, lehia defendatzeko araudian arautzen den bezala.

Hau da, LEAk dakienean eragozpenak daudela administrazio zuzenbidearen edo autonomiako, foruko eta Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko administrazio publikoen legeek baino maila beheragoko xedapen orokorren mende dauden egintzetatik datozen merkatuetan lehiari eusteko, egintza edo xedapen horien aurka egin ahal izango du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Bestalde, administrazio publikoen egintzak kolusiozko jokabidetzat jo daitezkeela uste bada, kasu honetan gertatzen den bezala, dagokion zehapen-espedientea abiarazi behar da¹³.

¹² Otsailaren 2ko 1/2012 Legea (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa).

¹³ Ikusi LEAren 2014ko irailaren 4ko ebazpena. 10/2012 esp. Farmazia-zerbitzuak egoitzetan 2. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialen aurka, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien aurka eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aurka abiarazitakoa



b. Subjektuen arteko harreman juridikoaren eragina, lehiaren aurkakotasunaren akordioa egoteko aukerari buruzkoa.

23. Lehiaren aurkako akordioa hartzeko, beharrezkoa da borondateen independentzia egotea berau sinatzen duten operadore ekonomikoen artean.

Ezin da zalantzan jarri toki-erakundeek aparteko borondatea dutela Aldundiarekin alderatuta, eta, era berean, ez da zalantzan jartzen Arabako Lanak sozietateak berezko bitarteko balioa duela Aldundiarekiko.

Hala ere, aztertu egin behar da zein neurritan diren apartekoak Arabako Lanak sozietatearen borondateak toki-erakundeei dagokienez. Hau da, aztertu egin behar da Arabako Lanak sozietatea horien berezko bitartekotzat jo daitekeen.

24. Espedientearen izapide osoan, aldeek alegatu dute –Bastidako Udalak izan ezik, kontrakoa adierazi baitu, geroago ikusiko den moduan– Arabako Lanak sozietateak berezko bitartekoaren balioa duela gainerako toki-erakunde akziodunen aldean. Ebazpen-proposamenean adierazitakoarekin bat etorritz, Lehiaren Euskal Kontseiluak alderdi hau aztertuko du.

25. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak (SPKLTB) honako hauek bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu¹⁴:

"n) Lege honen 24. 6 artikuluan ezarritakoaren arabera sektore publikoaren berezko bitartekoa edo zerbitzu teknikoa den erakunde bati prestazio jakin bat eman dezan agintzeko diren negozio juridikoak. Hala ere, sektore publikoaren berezko bitartekoa edo zerbitzu teknikoa den erakundeak agindu hori betetzeko egin behar dituen kontratuak lege honen pean egongo dira, kontratuak egiten dituen erakundearen

Halaber, honako hauek ere bai: TDCren ebazpena, 2003ko apirilaren 7koa. 535/2002 esp. Eléctrica Eriste; TDCren ebazpena, 2006ko uztailaren 27koa. 594/05 esp., Campoo Zinemak; CNCren ebazpena, 2008ko maiatzaren 7koa. 632/07 esp. Peraltako Udaleko ferietako salerosleak.

¹⁴ Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1 artikulua (BOE 276 zk., 2011ko azaroaren 16koa), zehazki, honako hauek aldatu dutena: 17/2012 legeak, abenduaren 27koak, (BOE-A-2012-15651), 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, otsailaren 22koak (BOE-A-2013-2030), 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak (BOE-A-2013-6938), 8/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 28koak (BOE-A-2013-7063), 10/2013 legeak, uztailaren 24koak (BOE-A-2013-8083), 11/2013 legeak, uztailaren 26koak (BOE-A-2013-8187), 14/2013 legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), , 20/2013 legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12888), 25/2013 legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13722), 1/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, urtarrilaren 24koak (BOE-A-2014-747), 13/2014 legeak, uztailaren 14koak (BOE-A-2014-7468), 2/2015 legeak, martxoaren 30ekoak (BOE-A-2015-3443), 25/2015 legeak, uztailaren 28koak (BOE-A-2015-8469), 31/2015 legeak, irailaren 9koak (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 11koak (BOE-A-2015-9801), 40/2015 legeak, urriaren 1ekoak (BOE-A-2015-10566). Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.



izaeraren eta kontratu-motaren eta kontratuaren zenbatekoaren arabera. Nolanahi ere, atariko titulu honetako II. kapituluko 2. atalean ezarritako gutxieneko zenbatekoak gainditzen dituzten obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, zuzenbide pribatuko erakundeek 137. 1 eta 190. artikuluetan ezarritako arauak bete beharko dituzte kontratu horiek prestatzeko eta esleitzeko."

Testu bereko 24.6 artikulua honako hau ezartzen du:

"Artikulu honetan eta 4. 1 n) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, sektore publikoko ente, organismo eta erakundeak botere esleitzaillearen berezko bitartekotzat edo zerbitzu teknikotzat jo ahal izango dira, jardueraren zatirik funtsezkoena botere esleitzaillearentzat gauzatzen dutenean; horretarako, baina, botere esleitzailleak, bere zerbitzu propioen gainean duen kontrolaren antzekoa eduki behar du ente, organismo eta erakunde horien gainean. Sozietateak baldin badira, gainera, kapital osoa titulartasun publikokoa izango da.

Nolanahi ere, botere esleitzailleek ente, organismo edo erakundeen gainean duten kontrola berezko zerbitzuen gainean dutenaren antzekoa dela ulertuko da, gomendio-emaileak bakarrik ezarritako jarraibideekin bat etorri aplikatu beharreko kudeaketa-gomendioak egotzi ahal dituztenean eta horien ordainsaria dagokien erakunde publikoaren bidez onetsitako tarifen arabera zehazten denean.

Paragrafo honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeak berezko bitarteko edo zerbitzu tekniko diren adierazpena, erakunde horiek sortzen dituen arauak edo bere estatutuek egin beharko dute berariaz. Orobat zehaztu beharko dute zein erakunderen aldera duten izaera hori, egin ahal zaizkien gomendio-uzteen araubidea eta zein baldintzen arabera esleitu ahalko zaizkien kontratuak. Halaber xedatuko dute ezingo dutela parte hartu erakunde horiek bitarteko propietat dituzten botere esleitzailleak egindako lizitazio publikoetarako deialdietan, nahiz eta, beste lizitatzailerik ez denean, lizitaziora atera den prestazioa gauzatzea agindu ahal zaien."

Ondorioz, sektoreko publikoko ente, erakunde eta entitateek bost baldintza bete behar dituzte, ezinbestean, berezko bitartekotzat jotzeko.

Lehenengoa- Horiek eratzeko estatutuek edo arauak **berariaz onartu behar dute berezko bitartekoaren izaera, eta berariaz zehaztuko dituzte zein entitateekin duten izaera hori.**

Bigarrena- Berezko bitartekoa sozietate bat bada, **kapital osoa titulartasun publikokoa** izango da.

Hirugarrena- Berezko bitartekoak gomendio-emailearekin batera egin beharko du jardueraren oinarritzko zatia.

Laugarrena- Eratzeko estatutuek edo arauak **berariaz onartuko dute zein gomendio-araubide ezarri ahal zaien** edo zein baldintzatan esleitu diezazkieten kontratuak. Zehaztu egin behar da ezinezkoa dela berezko bitarteko direneko botere esleitzailleak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzea. Nolanahi ere, lizitatzailerik bat ere lehian ez dagoenean, horien xede den exekuzioa agindu ahal zaie.

Bosgarrena- Gomendio-emaileak bere zerbitzuen gainean balia dezakeenaren **antzeko kontrola** gauzatu ahal izango du.



26. Arabako Lanak sozietatearen estatutuek berariaz onartzen dute bere akziodunen berezko bitartekoak direla; izan ere, 1. artikuluko 2. paragrafoan honako hau zehazten da: "bere akziodunen berezko bitartekotzat eta zerbitzu teknikotzat jotzen da, sektore publikoaren kontratuen sektoreko legerian aurreikusitako ondoreetarako".

Era berean, eztabaidaezina da Arabako Lanak sozietatearen kapital osoa (60.101,21 €) titulartasun publikokoa dela: 57.096,15 € ALDUNDIARENA eta 3.005,06 € akziodunen tokiko enteena.

Berezko bitartekoaren oinarritzko jardueraren zatia haren gomendio-emaielaren arabera izateari dagokionez, Europako jurisprudentziak interpretatzen du zati hori betetzat jo daitekeela lurraldeko ente bat baino gehiago daudenean, betiere enpresa horrek jardueraren oinarritzko zatia egin badu, eta ez nahitaez lurraldeko ente horietako batekin edo gehiagorekin "oro har lurraldeko ente horiekin guztiekin baizik"¹⁵.

Beraz, adierazitako lehen hiru baldintzak betetzat jo daitezke.

27. Nolanahi ere, Arabako Lanak sozietatearen estatutuek, espedientea abiarazi zenean eta Gertaerak Zehazteko Plegua idazteko unean, ez zuten berariaz jasotzen zein gomendio-araubide egotz dakiekeen, eta ez dute zehazten ezinezkoa dela berezko bitartekoak direneko botere esleitzailerek deitutako lizitazioetan parte hartzea. Araubide hori Aldundiaren eta Arabako Lanak sozietatearen artean eginiko hitzarmenean jaso zen, eta gainerako akziodunek ez dute berau osatzen.

Beraz, akatsa sortu zen Arabako Lanak sozietatea toki-erakundearen berezko bitartekotzat jotzeko araudian eskatzen ziren baldintzetako bat betetzean.

Hala ere, jakinarazi behar da, Arabako Lanak Ebazpen Proposamenari eginiko alegazioetan adierazitakoarekin bat etorritz, enpresa honen akziodunen batzar orokorrak 2015eko uztailaren 31n onartu zuela –espediente honen gertaerak zehazten dituen plegua ikusita– estatutu horien aldaketa. Hala, hark onartutako "arazo" bat "konpontzea" xede izango zuten hainbat artikulua sartu ziren (5699-5700 orriak).

28. Azkenik, aztertu egin behar da **antzeko kontrolaren baldintza**.

Baldintza hori sakon zehaztu du Europar Batasuneko jurisprudentziak.

¹⁵ Ikusi Justizia Auzitegiak 1999ko azaroaren 18an emandako epaiaren 70. zenbakia, C-107/98, Teckal Srl/Comune di Viano, Azienda Gas-Acqua Consorziale (AGAC) di Reggio Emilia, 50. posta-kutxatila. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2006ko maiatzaren 11n emandako epaia, C-340/04, Carbotermo SpA, Consorzio Alisei/ Comune di Busto Arsizio, AGESP SpA.



Aldeek Asemfo-Tragsa epaiak ezarritako dotrina alegatu dute puntu honetan, nahiz eta LEK honen ustez kasu honetan ezinezkoa den aurrekari gisa ezartzea¹⁶. Hori horrela da epaiak Tragsari autonomia-erkidegoen berezko bitarteko gisa balioa ematen diola aintzat hartuta (kapitalean partaidetza minoritarioa izanik), lege-maila duen arautik eratorri delako¹⁷. Ez dago Arabako Lanak sozietatea toki-erakundeen berezko bitarteko gisa babesten duen legezko araurik.

Azter dezagun Europar Batasuneko jurisprudentzia jakin batzuk kasu honetan aplikatzekoak diren, alde batera utzita, aldeek eginiko alegazioekin bat etorritz, aztertutako praktikan indarrean ez zegoen kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauaren analisia¹⁸.

Justizia Auzitegiak **Coname** epaian ondorioztatu du % 0,97ko partaidetza ez dela nahikoa antzeko kontrolaz ulertzen duguna emateko¹⁹.

Beste alde batetik, **Carbotermo** epaiak antzeko kontrolaren kontzeptua agindutako sozietateari buruzko benetako kontrolaren kontzeptura mugatu zuen, partaidetzaren ehunekoa edozein izanik ere²⁰. Hala, adierazi zuen botere esleipendunak berez edo beste botere publiko batzuekin sozietate esleipendunaren kapital osoa izateak esan nahi du, **seinale erabakigarria izan gabe**, botere esleipendun horrek sozietate horretan berezko zerbitzuek egiten dutenaren antzeko kontrola baliatzen duela.

Hala ere, sozietate esleipendun horren estatutuetan ezarritakoaren inguruan hausnartuz, epai horren bidez ondorioztatu zen horiek **ez ziotela kontrolerako inolako eskumenik ematen Busto Arsizio udalerriri eta ez ziotela boto**

¹⁶ Justizia Auzitegiak 2007ko apirilaren 19an emandako epaia, C-295/05, Asociación Nacional de Empresas Forestales (Asemfo)/Transformación Agraria, S.A. (Tragsa), Estatuko Administrazioa, 57-61 posta-kutxatila.

¹⁷ Zerga-, administrazio-eta gizarte-neurriak arautzen dituen abenduaren 30eko 66/1997 Legearen 4. artikuluko 88. zenbakia (BOE 313, 1997ko abenduaren 31koa). SPKLTBren egungo hogeita bosgarren xedapen gehigarria; 1072/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 20koa, Transformación Agraria, Sozietate Anonimoa enpresaren eta filialen araubide juridikoa garatzen duena (BOE 218 zk., 2010eko irailaren 8koa).

¹⁸ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (EBAO, 2014ko martxoaren 28ko. 94/65 L)

¹⁹ Justizia Auzitegiak 2005eko uztailaren 21ean emandako epaia, C-231/03, Consorzio Aziende Metano (Coname)/Comune di Cingia de Botti, Padania Acque SpA. Ildo berean, Justizia Auzitegiak 2005eko urriaren 13an emandako epaia, C-458/03, Parking Brixen GmbH/Gemeinde Brixen, Stadtwerke Brixen AG.

²⁰ Justizia Auzitegiak 2006ko maiatzaren 11n emandako epaia. C-340/04, Carbotermo



berezia emateko inolako eskubiderik egotzi bi administrazio-kontseiluei aitortutako egintza-askatasuna mugatzeko. Hortik ondorioztatu zen, egoera horietan, botere esleipendunak ez duela gauzatzen eztabaidagai dugun kontratu publikoaren sozietate esleiztailearen berezko zerbitzuek egiten dutenaren antzeko kontrola.

Azkenik, Asemfo-Tragsaren epaiaren ondoren emandako **Econord SpA** epaiak adierazten du hainbat administrazio publikok, erakunde esleipendun diren heinean, elkarrekin horiek tartean sartzen dituen zerbitzu publikoaren eginkizunaz arduratzen den erakundea sortzen dutela, edo aipatu erakundera beste administrazio publiko bat atxikitzen denean, antzeko kontrola izatearen baldintza betetzat joko dela administrazio publiko bakoitzak kapitalean nahiz kasuan kasuko erakundearen zuzendaritza-organoetan parte hartzen duenean²¹.

Jurisprudentzia honen analisitik ondorioztatzen da antzeko kontrolaren baldintza ebaluatzeko, hainbat irizpide erabili behar direla egoeraren balorazio orokorra egin ahal izateko.

Arabako Lanak sozietatean organo erabakitzaileak Akziodunen Batzordea eta Administrazio Kontseilua dira²². Tokiko erakundeek Administrazio Kontseilua osatzen dute. Bakoitzak akzio batekin hartzen du parte Akziodunen Batzordean, eta guztira 10.000 akzio daude²³.

²¹ Justizia Auzitegiak 2012ko azaroaren 29an emandako epaia, C-182/11 eta C-183/11, Econord SpA/Comune di Cagno (C-182/11), Comune di Varese, Comune di Solbiate, Comune di Varese, 32 eta 33 posta-kutxatilkak.

²² 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko testu bategina onesten duena, honako hauek aldatu dutena: 13/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 3koak (BOE-A-2010-18651), 2/2011 legeak, martxoaren 4koak (BOE-A-2011-4117), 25/2011 legeak, abuztuaren 1ekoak (BOE-A-2011-13240), 9/2012 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 16koak (BOE-A-2012-3812), 1/2012 legeak, ekainaren 22koak (BOE-A-2012-8406), 9/2012 legeak, azaroaren 14koak (BOE-A-2012-14062), 14/2013 legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), 11/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 5ekoak (BOE-A-2014-9133), 31/2014 Legeak, abenduaren 3koak (BOE-A-2014-12589), 5/2015 Legeak, apirilaren 27koak (BOE-A-2015-4607), 9/2015 Legeak, maiatzaren 25ekoak (BOE-A-2015-5744), 11/2015 Legeak, ekainaren 18koak (BOE-A-2015-6789), 15/2015 Legeak, uztailaren 2koak (BOE-A-2015-7391), 22/2015 Legeak, uztailaren 20koak (BOE-A-2015-8147). Testu bategina <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2010-10544>.

²³ Arabako Lanak sozietateak Ebazpen Proposamenari eginiko alegazioekin bat etorriz, sozietate horren Akziodunen Batzar Orokorrek 2015eko uztailaren 31n erabaki zuen kide berriak izendatzea Administrazio Kontseiluan. Horien artean, toki-erakundeei dagozkien hiru sartu ditu, Batzorde Orokorreara bertaratu diren eta horien ordezkariak diren ordezkariak aukeratutakoak.



Akzio bakoitzak botoa dakar Batzar Orokorrean, Arabako Lanak sozietatearen estatutuek ez dutelako ezarri batzordera joateko akzioen gutxieneko kopurua edota akziodun bakar batek eman ditzakeen gehienezko botoen kopurua. Aukera horiek onartuta daude Kapital Sozietateen legearen 179 eta 188 artikuluetan. Era berean, ez dago jasota toki-erakundeei Arabako Lanak sozietatearen gaineko erabakiak hartzeko beste eskumenik ematen dizkieten akordiorik.

Ondorioz, Aldundiak 9.956 boto ditu Batzorde Orokorrean, eta tokiko ente bakoitzak boto bakarra du (guztiak elkartuz gero, 44 izango lirateke). 44 botok 9.956 botorekin alderatuta izan ditzakeen kontrolak ez dirudi eragin erabakigarririk izango duenik Arabako Lanak sozietatearen helburu estrategikoetan eta erabaki esanguratsuetan. Análisi horretatik ondorioztatu behar da Aldundiak bere kabuz kontrolatzen duela Arabako Lanak sozietatea. Aldundiak ez du akordiorik hartu behar gainerako akziodunekin erabakiak hartzeko, eta, beraz, Aldundiarekin ez dago tokiko erakundeen kontrol orokorrik, alegatu den bezala.

29. Gehiago zehazteko, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ondorio berbera atera zuen "Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra 2012" izeneko fiskalizazio-txostenean. Honako hau baieztatu zuen:

Arabako Lanak SAren akziodunen parte osatzen duten EELLren berezko bitarteko gisa jotzeari dagokionez, sozietatearen estatutuak aztertu ondoren eta SPKLTBren 24.6 artikuluekin lotuta ondorioztatu behar da **ez dela aurreikusi toki-erakunde horiek kontrolatzeko mekanismorik, eta horrek zalantzan jartzen duela besteen aldean sozietatearen berezko bitartekoaren izaera bera**. Halaber, eta SPKLTBren artikulua berdinari dagokionez, Arabako Lanak SAren estatutuetan ez da zehaztean zein gomendio-araubide egotzi ahal zaizkion, eta hori AFAk eta sozietateak 2012ko abenduaren 12an sinatutako hitzarmen orokorrean jasota dago.

30. Ondorio hori bera atera du Bastidako Udalak. Honako hau adierazten du bere alegazioetan:

Bastidako Udala ez dator bat Arabako Lanak sozietatea Bastidako Udalaren berezko bitarteko izatearen tesiarekin. Arabako Lanak sozietatearen B motako akzioaren harpidetza-espeditentean (2012ko abendukoa), akzioaren harpidetza-proposamenaren udal-txosteneko ondorioen ataleko 5. orrialdean honako hau ezartzen zuen: "oinarri juridikoen atalean adierazitakoarekin bat etorritik, ondorioztatu behar da **udal batek (Bastidak) ezin duela berezko bitartekotzat jo Arabako Lanak, betiere horretarako oinarritzko baldintzak betetzen ez baditu (batez ere: horien zerbitzuen gainean izan dezaketenaren antzeko kontrola)**".



c. 2012ko azaroa baino lehenagoko gomendioen egoera

31. Gomendio-multzo bat Aldundiaren eta toki-erakundeen artean hartutako akordio formala baino lehen gauzatzen da (1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakiekin identifikatuta daude 15. paragrafoko taulan).

Horiei dagokienez, espediente honen ebazpen-proposamenean adierazitakoaren kontrara, LEK honek uste du ez dela egiaztatu tartean aztertutako lehia-faltaren jokabidea dagoela. Hori dela eta, LEK honek uste du ez dela beharrezkoa horien inguruan aldeek alegatu dutenaren legezko babes posiblea aztertzea.

LEK honek uste du 2012ko azaroa baino lehenagoko gomendio horiek lehia-faltaren jokabide horretatik kanpo daudela.

d. Ahozko gomendioak egotea (Bastida).

32. Bastidako Udalak alegatu du ez ziola inolako gomendiorik egin Arabako Lanak sozietateari, "laguntza teknikoa" eskatu ziola "Foru Aldundiari-Arabako Lanak sozietateari".

33. Hori aintzat hartuta, adierazi behar da ahoz eginiko gomendioak ezin direla eragozpentzat jo halakorik ez dagoela ikusteko. Espedientean jasota dago Udaltzatza Osoak 2013ko ekainaren 13an onetsi zuela "Otero auzoan azpiegiturak berritzeko eta zoladura jartzeko obra gauzatzeko proiektu teknikoa, Arabako Lanak aurkeztutakoa eta 2013ko ekainaren 12ko sarrera-erregistroa zuena, 813.097,83 €-ko zenbatekoan (BEZik gabe)". Era berean, jasota dago gomendio hori ahoz egin zela, Aldundiko ordezkariak Batzar Nagusien Ikerketa Batzordean aitortu zuten moduan.

Espediente honetan eragina duten arrazoiak direla-eta gomendio hori bertan behera geratu zen erabat gauzatu aurretik, eta Arabako Lanak sozietateak, bere lanak abiarazi zituenez, gainerako gomendioetan egiten ez den beste sistema baten fakturazioa egin zuen: Arabako Lanak sozietateak 17.364,01 € (BEZa barne) faktura zizkion udalari 2014ko otsailaren 3an. Ondoren, 2014ko maiatzaren 5ean, faktura hori zuzendu egin zen, eta beste bat egin zen 5.034,11€-ko zenbatekoan (BEZa barne) "proiektua idazteagatik sortutako kanpoko gastuak" kontzeptuan.

Horrenbestez, ez da bidezkoa gomendiorik ezaren alegazioa onartzea, baina bai onartu behar da izaera "berezia" duela egindako gainerako guztiekin alderatuta, bai gomendioa egiteko moduagatik, bai erabat gauzatu arte bertan behera utzi izanagatik ere. Gomendio horrek merkatuan duen eragina, beraz, oso ezberdina da gainerakoekin alderatuta.



B. Arau-hausteen sailkapena

34. LDLaren 62. artikulua hiru motatako arau-hauste sailkatzen ditu: arinak, astunak eta oso astunak. Hala, besteak beste, honako hau arau-hausten astuntzat joko da:

Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten ez dioten benetako **enpresa edo enpresa potentzialen arteko** akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira.

Kasu honetan, espedientean dauden enteak ez daudenez elkarren lehian, arau-hauste astuntzat jo behar da aztergai dugun jokabidea, urratu egiten baitu LDLaren 62.3 a.) artikulua.

2. Antijurizitatea

A. Egon daitezkeen akatsak

35. LDLaren 1.3 artikulua ezartzen du ez direla debekatutzat jotzen ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, merkaturatzea edo banaketa hobetzen laguntzen duten jokabideak edo aurrerapen tekniko edo ekonomikoa bultzatzen dutenak, betiere baldintza hauek guztiak betetzen direla egiaztatzen bada.

"a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei lortzen diren onuretan bidezko modu batean parte hartzen uztea.

b) Interesa duten enpresei helburuak lortzeko ezinbestekoak ez diren mugak ez jartzea, eta

c) Aurreikusten diren produktu edo zerbitzuen zati handi baten inguruan lehia desagerrarazten ez uztea, parte hartzen duten enpresei."

Aldeek, horri dagokionez, alegatu dute akordio horrek hainbat hutsune dakartzala indarrean dagoen testuinguru juridikoan eta ekonomikoan, eta horien existentzia justifikatzen dutela. Hortaz, akordioaren debekutik salbuetsitzat jotzeko arrazoirik dagoen aztertuko dugu.

36. Alegatutako lehen efizientziak dakar Arabako Lanak sozietatea beste bi enpresa publikotan berrantolatzea, ondoren desegiteko. Alderdi honek –2012ko akordioaren zioen azalpenean aipatu da– ez du loturarik tokiko enteak, Arabako Lanak sozietateak eta Aldundia lotzen dituen jardunbidean egon daitezkeen efizientziekin.

37. 2012-2014 epean, Arabako Lanak sozietatearen diru-sarrerak jarraian adierazi bezala banatu ziren:



	Arabako Lanak FAKTURAZIOA (BEZik GABE)		
	2012	2013	2014
Tokiko enteen gomendioak	0,00 €	24.317,19 €	243.001,29 €
2012 baino lehen eginiko gomendioak	27.694,28 €	0,00 €	0,00 €
AFaren gomendioak	58.882,94 €	115.164,62 €	24.099,68 €
Gomendioekin loturarik ez duten diru-sarrerak	47.903,94 €	43.187,75 €	9.287,80 €
GUZTIRA	134.481,16 €	182.669,56 €	276.388,77 €

Iturria: Arabako Lanak

Ikusten den moduan, tokiko enteen gomendioak 2014. urtean jarduera osoaren % 87,92 osatzen dute.

Diru-sarrera horiekin, Arabako Lanak sozietatearen egituran 14 langile daude: 2 bide-ingeniari, 1 nekazaritza-ingeniari, 2 arkitekto, 1 arkitekto tekniko, 4 administrari, 2 abokatu, 1 finantzari eta 1 gerente²⁴.

Arabako Lanak sozietateak argitaratutako kontuetan etengabeko galerak ikus daitezke, eta nabarmen areagotu dira tokiko enteekin erabakia hartu ondorengo urteetan.

	Arabako Lanak				
	2010	2011	2012	2013	2014
Ustia ketaren emaitzak	-390.734	-244.052	-502.767	-881.958	-818.983
Ekitaldiaren emaitza	-387.057	-238.841	-500.348	-966.680	-817.615
Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0	352.884	313.419	273.741
Aldundiaren eginiko ekarpenak galerak konpentsatzeko	387.314	238.533	266.252	773.970	659.739

Iturria: Axesor

Adierazi dugunetik ezin da ondorioztatu efizientziarik dagoenik.

38. Efizientziak Arabako Lanak sozietateak emandako zerbitzuengatik fakturatutako prezioaren arabera ere planteatu daitezke.

Arabako Lanak sozietateak obraren ordainketarekin loturiko dokumentu bakoitzaren zenbatekoaren % 6 fakturatu du –BEZik gabe–, eman dituen zerbitzuak alde batera utzita. Goranzko zenbateko hori, beraz, ez dator bat enpresa publikoak (akordioaren eraginpean dauden laurak edo soilik horietako batzuek) benetan egin diren lanekin.

Lizitazioen kudeaketari dagokionez, azpimarratu behar da espedientean eragina duten gomendioetatik hiru kontratu-mota daudela (6 arrunt, 10

²⁴ Iturria: Arabako Lanak SAren aurrekontuak eta lanpostuen zerrenda.



sinplifikatu eta 4 esleipen zuzenekoak). Espediente horiek prestatzean zailtasun ezberdinak daude, baina horrek ez du eraginik izan Arabako Lanak sozietateak kobratutako prezioan.

Zenbateko horrek, gainera, gainditu egiten du Arabako Lanak sozietateak 2014an kanpora bidali dituen antzeko ezaugarriak dituzten beste lan batzuen zenbatekoa. Laguntza teknikoaren zerbitzuak eta proiektuaren idazketa- eta zuzendaritza-zerbitzuak obra esleitzeko aurrekontuaren % 2,79an eta % 1,98an esleitu dira.

TOKI-ERAKUNDEAK	KONTZEPTUA	ESLEITZEKO AURREKONTUA		LAGUNTZA TEKNIKOAREN/OBRAREN %
		OBRA	LAGUNTZA TEKNIKOA: PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA ZUZENDARITZA OBRA	
J.A. LOZA	Sarea berritzea eta zoladura jartzea	709.383,95 €	19.800,00 €	% 2,79
URIZAHARRAKO UDALA	Sarea berritzea eta zoladura jartzea	448.926,58 €	8.900,00 €	% 1,98

39. Egindako analisitik ezin da ondorioztatu LDLaren 1. artikuluko lehen paragrafoaren debekatuaren erabakia ez aplikatzea justifikatzen duen efizientziarik dagoenik. Aldeek alegatutako efizientzia posibleek, halakorik egotekotan, LDLaren 1. artikuluko hirugarren paragrafoan jasotako hiru baldintzak bete behar dituzte, eta, beraz, **erabiltzaileei** (kasu honetan, toki-erakundeei) **praktikan sortutako onuretan modu berdintsuan parte hartzen utzi beharko litzaieke** (alderdi horren aurka egin da ebazpen honetan).

B. Legezko salbuespena egon ahal izatea

40. Guardiako Udalak alegatu du udalerriko hirigune historikoan zoladura eta azpiegiturak jartzeko gomendioa LDLaren 4. artikuluko salbuespenean jasota dagoela; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarearen Legearen aplikazio-esparruan dago, kultura-ondareztat jotzen delako (monumentu-multzo kategorian), 135/2002 Dekretuarekin bat etorri²⁵.

²⁵ 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (BOE, 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa). 135/2002 Dekretua, ekainaren 11koa, Guardiako (Araba) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenez, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko dena (BOE, 122 zk., 2002ko ekainaren 28koa).



Zoladuren hitzarmenaren oinarri juridikoa, alegazio honen arabera, kultura-ondarearen arloan elkarrekiko lankidetzeta eta laguntza teknikoaren prozeduran datza. Legez Eusko Jaurlearitzaren, Foru Aldundien eta Udalen arteko arlo gisa definitzen da, berriaz lankidetzarako agindua ezarrita nork bere eskumenak gauzatzean.

Hala, Udalak ez dio Arabako Lanak sozietateari agintzean lan material jakin batzuk egitea, bi entitateak lankidetzeta bateratuaren esparruan arituko lirakeelako, lankidetzan eta elkarrekiko laguntzan jarduteko berriazko legezko gomendioa betez.

Horri dagokionez, LEK honek adierazi behar du Guardiako eta Arabako Lanak sozietatearen artean sinatutako hitzarmena azken horrek toki-erakundeekin sinatutakoaren antzekoa dela, eta honako hau ezartzen duela aurrekarietan:

I. 1999ko urtarrilaren 26an, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Lanak SAk hitzarmen orokorra sinatu zuten, eta horren xedea zen lehenengoak bigarrenari eginiko gomendioak arautzen zituzten arau orokorrak ezartzea (hemendik aurrera, "hitzarmen orokorra"). Ondoren 2008ko uztailaren 16an aldatu zen, eta, azkenik, 2012ko abenduaren 12an. Hitzarmen orokorraren azken aldaketa horren xedea da Arabako Lanak SAren bazkideen egoera berria ikustea. Hala, sozietate honek kapital soziala Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeetara (hala nahi dutenetara) handitzeko prozesua ireki du, bere kapital sozialaren akzio bat ematearen bidez. Horrela, Arabako Lanak SA toki-erakunde horien berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa izan ahalko da, eta, beraz, horiek Arabako Lanak SAri egin ahal izango dizkiete kudeaketa-gomendioak.

II. Hitzarmen orokor horren lehen oinarrian aurreikusten da Arabako Lanak SAri egiten zaizkien gomendio edo agindu guztiak berriazko gomendioaren inguruan ateratako ondorioaren bidez gauzatu behar dela (bereziki eduki horri dagokiona) eta Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeetarako haren zortzigarren oinarria.

III. Aurreikuspen hori betetzeko, Guardiako Udalak, 2013ko urriaren 4an izandako bileran, eta Arabako Lanak SAren Administrazio Kontseiluak 2013ko urriaren 22an izandako bileran, onetsi egin dute berriazko gomendio honen harpidetza, honako hauetan hitzartutakoarekin bat etorritz:

Era berean, honako hau adierazten da bigarren klausulan ("egin beharreko lanen deskribapena"):

Lan hauek egin beharko dira.

Alde batetik, "Guardiako (Araba) Hirigune Historikoan zoladura eta azpiegiturak jartzeko proiektuaren 2. fasea" idaztea, ondoren berrikusteko eta Guardiako Udalak onesteko.

Proiektu hori egiteko presa dagoela aintzat hartuta, Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Programako laguntzak lortzeko, proiektua berriazko gomendio hau sinatu aurretik idatzi da. Zehazki, Arabako Lanak SAren zerbitzu teknikoek egin dute, **Guardiako Udaleko berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa.**



Hitzarmen horretan ez da inon aipatzen Kultura Ondarearen Legearen babes juridikoa edota jarduteko eremuaren monumentu-multzoaren izendapena. Beraz, aintzat hartu behar da gomendio hori egin zela Arabako Lanak sozietatearen ustezko berezko bitartekoa zelako; horregatik, alegazio hau baztertu egin behar da.

Guardiako Udalak froga gisa aurkeztu zuen, eta horrekin loturiko lekukotza-froga gisa eskatu du, udal horren arkitekto aholkulariak eginiko txostena. Bertan zehazten dira Arabarri eta Arabako Lanak sozietateek eginiko bost jarduketak. Horietako azkena da "Guardiako Hirigune Historikoan azpiegiturak berritzeko eta zoladura jartzeko proiektua", 2008an idatzitakoa eta Arabarrik agindutakoa. Inola ere zalantzan jarri gabe txosten horretan esaten dena, egia da hizpide dugun gomendioaren xedea dela "Guardiako (Araba) Hirigune Historikoan zoladura eta azpiegiturak jartzeko proiektuaren 2. fasea" –eta ez Arabarrik aurretiaz eginiko jarduketak, 2013ko urriaren 22an eginikoak, ia 5 urte geroago–, eta lehenago adierazi den bezala, funtsezko oinarri gisa Arabako Lanak sozietateak Guardiako Udalarekiko berezko bitartekoaren izaera duela aipatzen du.

41. Ondorioz, Guardiako Udalak sinatutako hitzarmena gainerako toki-erakundeek sinatutakoaren berdina denez, LEK honetan ere trataera berdina izan behar du.

C. Garrantzi gutxiagoko edo lehian modu esanguratsuan eragiteko ahalmenik ez duen ustezko jokabidea egotea

42. Toki-erakunde askok alegatu dute egindako gomendioak LDLn xedatutakoarekin bat ez badatoz, legearen aginduekin edo merkatuan garrantzi gutxiagoko eragina edota eragin "esanguratsuak" sortzeko ahalmenik eza jasotzen duen Erregelamenduarekin babestuta egongo lirатеkeela.

43. Egiaztatu den bezala, toki-erakundeen, Aldundiaren eta Arabako Lanak sozietatearen artean eginiko akordioaren xedea da merkatutik aldentzea Arabako Lanak sozietateak toki-erakundeei emandako zerbitzuak.

Aldundiak eta Arabako Lanak sozietateak enpresa publikoan eragina duten zerbitzuen merkatu osoa ixteko beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatzen dituzte. Hala, euren kapitalaren 500 akzio gordetzen dizkiete toki-erakundeei, eta eurei guztiei berariaz enpresa honen zerbitzuen laguntza izateko aukera ematen dute, merkatu pribatura jo beharrean. Toki-erakunde askok eskaintza onartzeak ez du inola ere eragozten Arabako Lanak sozietatearen eta Aldundiaren jokabidearen inguruko azterketa egitea. Beraz, ezin da onartu



jokabidea garrantzi gutxiagokoa dela dioen alegazioa, ezta, LDEren 3. artikuluan ezartzen den bezala, jokabide horrek lehiari modu esanguratsuan eragina izateko ahalmenik ez duela dioen alegazioa ere.

Toki-erakunde bakoitzak berariaz ahalmena du kasuan kasuko udal-mugartean ematen diren zerbitzuetan esku hartzeko. Hori dela eta, Aldundiak egiten duen proposamen bakoitza onartzeak dakar Arabako Lanak sozietateko lehiakideek lurralde bakoitzean eskatzen dituzten zerbitzuen merkatuaren % 100 ixtea erabakitzea.

Are gehiago, espedientean sartuta daudenen gogoz kontrako arrazoiengatik beste erakunde batzuek jokabide horretan ez parte hartzeak ez du murrizten horietako bakoitzak aztertutako jokabidearen balio-galera.

44. Hori dela eta, LDEk ondorioztatu du ezin dela onartu egindako alegazioa.

3. Ohiko jokabideak eta jokabide antijuridikoak merkatuan duten eragina

45. Aztertutako akordioaren xedea da Arabako Lanak sozietatearentzat gordetzea Arabako hainbat toki-erakundek eskatzen dituzten proiektuak idazteko, obren eskumeneko zuzendaritza-lanak egiteko eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa egiteko zerbitzuak, sektoreko profesionalen kalterako.

Gomendioen xede diren kontratuak (6, 7 eta 9tik 21era), beraz, merkatutik atera dira.

Arabako Lanak sozietateak akordio honek –Aldundiarekin sinatutako hitzarmenean aurreikusten den bezala– % 6ko onura jasoko du kasuan kasu agintzen den obraren ordainketari dagokion ziurtagiri edo dokumentu bakoitzari dagokionez. % 6 kobratzeko aukera aztertutako agindu guztietan baliatu da, Bastidaren kasuan izan ezik, ematen dituen zerbitzuak kontuan hartu gabe.

Akordio honek murriztu egiten du obrak gauzatzean eskaintzari dagokionez enpresa eraginkorrenak kontratatzekeo pizgarria; izan ere, eskaintza zenbat eta merkeagoa izan, orduan eta diru gutxiago kobratuko du Arabako Lanak sozietateak.

Azkenik, Arabako Lanak sozietateak erraztu egiten du akordio horren ondorioek izan dezaketen hedapena; izan ere, Arabako eraikuntzaren kultura-ondarea kontserbatzea xede duten jarduketak diruz laguntzen dira, eta zuzenean puntuazio gehien ematen zaio "bideragarritasun teknikoa" atalean diru-laguntza eskatzean (diruz laguntzekoak badira) zehazten dutenei obren lizitazioa, kontratazioa eta zuzendaritza Arabako Lanak sozietateak egitea. Akordioaren



baldintza horrek Arabako Lanak sozietateari abantaila ematen dio zerbitzuak tokiko beste erakunde batzuei eskaintzen dizkien beste edozein lehiakiderekin alderatuta.

46. Akordio horrek eragin du lehia faltsutzea Arabako udalerrri eta kontzejuetan proiektuak idazteko, obren eskumeneko zuzendaritza egiteko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko zerbitzuei dagokienez.

Lehenik eta behin, merkatutik atera ditu 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 17, 18 eta 19 zenbakiekin identifikatutako gomendioetan eraikuntza-proiektua idazteko jarduerak.

Bigarrenik, merkatutik atera ditu 6, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20 eta 21 zenbakiekin identifikatutako aginduei dagozkien obren eskumeneko zuzendaritzaren eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko eginkizunak.

Hirugarrenik, horrek ekarri du prezio berbera aplikatzea (% 6 ziurtagiri bakoitzeko) zailtasun ezberdina duten zerbitzuengatik. Gainera, aintzat hartuta Arabako Lanak sozietateak –zerbitzuak ematen dituen heinean eta obrak esleitzen dituen heinean– bi eginkizun dituela, ordaintzeko sistemak kontratazio efizientean pizgarri falta ekarri du; izan ere, enpresa publikoaren diru-sarrerak askoz ere handiagoak izango dira obra egiteko lizitazioaren esleipen-prezioa ere handiagoa den heinean.

Azkenik, Arabako Lanak diru-laguntzak kudeatzeak eta akordioan hark eginiko proiektuei gehieneko puntuazioa emateak justifikatu gabeko abantaila ematen dio gainerako lehiakideekin alderatuta.

4. Erantzukizuna

A. Erruduntasuna

47. Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorritik —Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian—, administrazioaren erantzukizunaren esparruan ez da nahikoa jokabide arrunta eta antijuridikoa izatearekin, horrez gain beharrezkoa baita erruduna izatea²⁶. Erruduntasuna elementu saihestezina da zehapen-eskubidearen aplikazioari buruz ari garenean, eta beharrezkoa da gauzatutako

²⁶ KAE 76/1990, 1990eko apirilaren 26koa eta JAE, 1995eko abenduaren 12koa, 1999ko maiatzaren 14koa, 2002ko martxoaren 4koa, 2002ko abenduaren 19koa, 2005eko martxoaren 18koa eta 2010eko uztailaren 6koa.



jarduketa espedientean sartuta daudenei egoztea, bai dolu gisa, bai zuhurtasun falta gisa; hau da, subjektuak nahita jardutea edo kontziente izatea –eskatzen zitzaion diligenzia alde batera utzi izanagatik– bere egintzak lehia askeari eraso egin diezaiokeela edo egiten diola.

48. Kasu honetan, espedientean sartuta dauden tokiko erakundeen erantzukizuna kudeaketa-gomendioa kontzienteki erabiltzearen ondorio da, Arabako Lanak sozietateak egiten dituen lanak merkatutik ateratzeko bide gisa.

Aldundiak erantzukizuna du martxa jarri duelako tokiko erakundeei euren akzioen ehuneko bat emateko prozedura (betiere hala nahi dutenek), dagozkien obra publikoak egin ditzaten bere sozietate publikoaren bidez (Arabako 400 toki-erakunde baino gehiagori eman zaie aukera). Ondorioz, Aldundiaren erantzukizuna ez dator, alegazioan esaten den bezala, espedientean estalkia jaso izanagatik, Arabako Lanak sozietatearen bazkide nagusia da eta. Erantzukizun hori du lehiaren kontrako jokabidean duen berezko partaidetzagatik.

Azkenik, Arabako Lanak sozietateak erantzukizun hori du toki-erakundeek eginiko kudeaketa-gomendioak gauzatu dituelako (hain zuzen, berezko bitartekotzat hartu ezin direnak), baita prozesuetan dauden lehiakideen aldean abantailan dagoelako Arabako eraikuntzen kultura-ondarea kontserbatzeko toki-erakundeei diru-laguntzak emateko prozesuetan lehiatzen direnekin alderatuta, zuzenean eman baitzaio gehienezko puntuazioa bere bitartekaritzarekin eginiko obrei "bideragarritasun teknikoa" atalean.

Arabako Lanak prezioa ezartzean izan duen erantzukizun-faltari buruz eginiko alegazioari dagokionez –obren % 6ko ehuneko finkoa hartu du oinarri, emandako zerbitzuak alde batera utzita– (horren bidez Aldundiak ezarri du hark kobratutako prezioa), azpimarratu egin behar da bi aldeen arteko hitzarmenaren baldintzetan argi eta garbi jasotzen direla "**zenbatu ahal izango du**" hitzak. Hori dela eta, toki-erakundeei eginiko zenbaketa eraginkorra bi entitateen arteko erantzukizuna dela ulertu behar da.

B. Preskripzioa

49. Ebazpen Proposamena onartu zen erantzukizuna iraungi zela, preskribatu egin zirelako egindako hainbat kudeaketa-gomendioren arau-hausteak. Horietatik guztietatik aintzat hartu denez LDLri arau-haustea egin izana egiaztatu ez dela, ez da bidezkoa alderdi hori aztertzea.



C. Legezko konfiantza

50. Tokiko hainbat entek alegatu dute bere jokabidea legezko konfiantzaren printzipioak babesten duela.

51. Hori dela eta, adierazi behar da legezko konfiantzaren printzipioa Zuzenbidearen printzipio orokorretako bat dela eta berariaz jasota dagoela gure legerian²⁷.

4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aldatzen duenak adierazten du segurtasun juridikoaren printzipiotik eratorritako Administrazio Publikoen bi jarduketa-printzipio sartu direla: fede onarena eta herritarrek administrazio publikoen jarduketa bidegabe aldatu ezin den legezko konfiantza izatearena²⁸. Printzipio horiek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 3. artikuluan sartu dira.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Administrazio publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten dute, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

Halaber, euren jardueran, fede onaren eta legezko konfiantzaren printzipioak ere bete behar dituzte.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorritik, legezko konfiantzaren printzipioa aplikatu behar da Administrazioak sortutako kanpoko seinaleetan oinarritzen denean, betiere eztaba daezinak badira onuradun partikularrari eragiteko administrazio-jardueraren legezkotasunean konfiantza izatea²⁹. Era berean, Auzitegi Gorenak adierazi zuen legezkotasunaren konfiantza babesteko printzipioa aplikatu behar dela, baina ez partikular onuradunak edozein motatako uste psikologiko duenean, Administrazioak sortutako

²⁷ Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren epaiak, 1961eko martxoaren 22koa SNUPAT lkatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoko Agintaritza Gorenaren aurka, metatutako C-42/59 eta C-49/59 auziak eta 1965eko uztailaren 13koa, Lemmerz-Werke GmbH, lkatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoko Agintaritza Gorenaren aurka, metatutako 111/63 auzia.

²⁸ 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duena (BOE, 12. zk., 1999ko urtarrilaren 14koa).

²⁹ 773/1990 AGE, 1990eko otsailaren 1ekoa; 15554/1990 AGE, 1990eko otsailaren 1ekoa; 5320/1997 AGE, 1375/2000 AGE, 2000ko otsailaren 23koa, 1997ko uztailaren 28koa; 6785/2000 AGE, 2000eko irailaren 26koa; 6868/2009 AGE, 2009ko azaroaren 3koa; 6164/2013 AGE, 2013ko azaroaren 22koa, 1858/2015 AGE, 2015ko maiatzaren 4koa.



kanpoko seinaleetan oinarritzen denean baizik, betiere uste horiek eztabaidaezinak badira onuradun partikularrari eragiteko administrazio-jardueraren legezketasunean konfiantza izatea. Gainera, jokoan dauden interesak –banako interesa eta interes orokorra– haztatu behar direla ezarri da, hain zuzen, pentsarazteko egintza (administrazio-jarduera horretan zentzuzko konfiantza izan zuen) baliogabetzeak edo eraginik gabe uzteak onuradunaren ondarean jasan behar ez dituen kalteak ekarriko dituela.

Bada, ikus daitekeen bezala, legezketasun-konfiantzaren printzipioa jurisprudenzian sortu zen eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jaso zen, administrazioaren jarduketaren legezketasunean konfiantza duen partikularra babesteko, baina ez administrazio bera babesteko. Administrazio bakoitzak bere egintzen legezketasuna babestu behar du eta legeari eta zuzenbideari bete-betean men egiteko printzipioan oinarrituta.

5. Prozesu-kontuen analisia.

A. LEK-k probak martxan jartzeko eskaera

52. Guardiako Udalak eskatu du lekukotza/perituen froga egitea. Horretarako, I.M.A arkitektoa bertaratu da. Gertaerak zehazteko pleguari eginiko alegazioak erantsi ditu, hura berresteko eta egokitze jotzen diren azalpenak emateko.

LEK honek atzera bota du eskatutako lekukotza edo perituen froga; izan ere, ez da inola ere zalantzan jarri arkitekto horrek esan duena, pertsona horrek esandakoaren eta Guardiako (Araba) hirigune historikoan zoladura jartzeko eta azpiegiturak egiteko proiektuaren 2. fasearen kudeaketa-gomendioaren akordioan hitzez hitz idatzitakoaren artean koherentzia falta dagoela adierazi baita.

LEK honek uste du ez dela beharrezkoa lekukotza-froga gertaerak zehazteko pleguari eginiko alegazioekin batera erantsitako txostenean jasotako alderdi bat ere zehazteko.

53. Moreda Arabako Udalak, Navaridasko Udalak, Peñacerrada-Urizaharrako Udalak Samaniegoko Udalak, Argomanizko Administrazio Batzarrak, Olabarriko Administrazio Batzarrak, Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarrak eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrak eskatu dute EHAOren Ordezkaritzen eta Espainiako gainerako Arkitektoen Elkargo Ofizialen ofizioa bidaltzeko, elkargokide-kopurua ziurtatzeko, baita 2012tik 2014ra bitartean ikus-onesitako proiektuen kopurua eta bakoitzaren aurrekontuen zenbatekoa ere.



LEK honek atzera bota du eskatutako froga gauzatzea, ez duelako beharrezkoa ikusten gauzatutako erabakiaren existentzia, antijurizitatea edota larritasuna zehazteko, eta, era berean, ez duelako funtsezko daturik ematen izan ditzakeen eraginaren inguruan.

B. Ebazpen-proposamenean zehapen-proposamenik ez egotea

54. Espedientean sartutako dauden hainbatek alegatu dute euren defentsa-eskubidea urratu egin dietela, ebazpen-proposamenean ez delako proposatu inolako zigorrik. Horri dagokionez, adierazi behar da LDLaren 50.4 artikulua honako hau ezartzen duela:

Instrukzio-aldian egin beharrekoak eginda, Ikerketen Zuzendaritzak ebazpen-proposamena egingo du, eta interesatuei jakinaraziko zaie, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten hamabost eguneko epean.

Artikulu horrek ez du ezartzen ebazpen-proposamenean gutxienezko edukia; beraz, berau garatzen duen araudian ezarritakoari heldu behar zaio (LDE). Honako hau xedatzen du 34.1 artikuluan:

Ebazpen-proposamenean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: espedientearen aurrekariak, egiaztatutako gertaerak, horien egileak, gertaerei dagokien kalifikazio juridikoa, arau-haustea dagoela aitortzeko proposamena, eta, hala badagokio, merkatuan izan dituen eraginak, egileei dagokien erantzukizuna, bildutako egoera larrigarriak eta aringarriak eta Ikerketa Zuzendaritzak eginiko proposamena, uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 65. eta 66. artikuluetan zehazten den isunaren zenbatekoa salbuetsi edo murrizteari buruzkoa. (...)

Ikusten den bezala, lehiaren esparruko prozedurazko araudian, ebazpen-proposamenean gutxienezko edukian, ez da jasotzen ezarri beharreko zehapenaren proposamenik. Gehiago zehazteko, arau hori derrigortasun-terminoetan idatzita dago ("beharko du"), eta eragotzi egiten du bertan jasota ez dauden bestelako alderdiak sartzea.

Ebazpen-proposamenean zehapen-proposamen bat bazter uztea ez da lehiaren esparruan indarrean dagoen araudia berritzea, aurreko araudiari bete-bete eustekoa baizik, arlo horretako jatorrizko legea abiapuntu hartuta³⁰.

³⁰ 110/1963 Legeak, uztailearen 20koak, lehiaren jokabide murriztaileak zigortzeari buruzkoak (BOE, 175 zk., 1963ko uztailearen 23koa) honako hau ezartzen zuen 22.4 artikuluan: "Zerbitzuaren zuzendariak, espedientea amaitu ondoren, Auzitegiari igorriko du, txosten-proposamen batekin batera. Bertan jasoko dira ikusitako jokabideak, aurrekariak eta izan dituen eraginak". 16/1989 Legeak, uztailearen 17koak, Lehia Defendatzekoak (BOE 170 zk., 1989ko uztailearen 18koa) honako hau ezartzen du 37.3 artikuluan "Zerbitzuak, instrukzioa amaitutakoan, Lehia Defendatzeko Auzitegiari igorriko dio dosierra; dosierarekin batera txosten bat igorriko dio, eta, bertan, hautemandako jokabideak, aurrekariak, egileak, merkatuari eragindako ondorioak, egitateen kalifikazioa eta egileei dagozkien erantzukizunak egongo dira zehaztuta".



Lehia defendatzeko prozesuko araudiaren espezialitate bat alde batera uzte hori –araudi orokorretik kanpo geratzen da– zehapen-prozedura arautzen duen erregelamenduan oinarrituta dago, Administrazio Prozeduraren Legearen garapenean. Honako hau zehaztea eskatzen da bertan "proposatzen den zehapena ezar dadila"³¹.

Azkenik, adierazi behar da, espedientearen baitan dauden zenbaitek alegatzen duten moduan, LD Eren 34.1 artikuluan zehazten den "egileei dagokien erantzukizuna" esapidea ezin dela inola ere parekatu zigor bat proposatzeko betebeharrarekin. Beraz, bere garaian igorritako ebazpen-proposamenean dagoeneko V. epigrafea sartu zen erantzukizunaren amaieran.

C. Prozedura ebazteko gehienezko epea

55. Guardiako Udalak alegatu du ebazpen-proposamena LD Erenkin bat ez datorren eteteko epearen zenbaketan oinarrituta dagoela, abuztuaren 13an amaitu behar zuela, eta, beraz, zuzendu egin behar dela espedientea ebazteko gehienezko beste epe bat ezartzeko.

Hala, adierazi behar da LD Eren 12. artikulua honako hau ezartzen duela:

Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 37.1a) eta b) artikuluetan aurreikusitako kasuetan, eskakizuna jakinarazten denetik hartzaileak benetan bete arte igarotzen den denbora egongo da, edo, halakorik ezean, horretarako emandako epean³².

³¹ 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zehapen ahalmena erabiltzeko prozeduraren erregelamendua onesten duena (BOE 189 zk., 1993ko abuztuaren 9koa); Estatuko 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (BOE 285 zk., 1992ko azaroaren 27koa, honako hauek aldatzen dutena: 14/1993 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 4koak (BOE-A-1993-21772), 6/1997 Legeak, apirilaren 14koak (BOE-A-1997-7878), 29/1998 Legeak, uztailaren 13koak (BOE-A-1998-16718), 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak (BOE-A-1999-847), 24/2001 Legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2001-24965), 14/2003 Lege Organikoak, azaroaren 20koak (BOE-A-2003-21187), 62/2003 Legeak, abenduaren 30ekoak (BOE-A-2003-23936), 11/2007 Legeak, ekainaren 22koak (BOE-A-2007-12352), 13/2009 Legeak, azaroaren 3koak (BOE-A-2009-17493), 18/2009 Legeak, azaroaren 23koak (BOE-A-2009-18732), 25/2009 Legeak, abenduaren 22koak (BOE-A-2009-20725), 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak (BOE-A-2011-4117), 8/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, uztailaren 1ekoak (BOE-A-2011-11641), 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12887), 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13756), 15/2014 Legeak, irailaren 16koak (BOE-A-2014-9467), 6/2015 Lege Organikoak, ekainaren 12koak (BOE-A-2015-6517). Testu bategina <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-26318>.

³² LD Eren 37 art.: "1. Prozedura bati buruz ebazteko legez ezarritako gehienezko epeak zenbatzeari uzteko aukera egongo da, arrazoiutako ebazpenaren bidez, ondorengo kasuetan: a) Akatsak konpondu ahal izateko, edozein interesatari agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai eskatu behar zaionean. b) Hirugarrenei edo administrazio publikoetako beste organo batzuei akatsak konpondu ahal izateko, agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai eskatu behar zaionean."



Hitzez hitz idatzitako artikulua horretan argi adierazten da etete hori, horretarako emandako epean, hartzaileak egindako eskakizuna betetzen ez duenean besterik gertatzen ez dela (esate baterako, lankidetzaren betebeharrak ezinezkoak diren edo bete ez diren). Nolanahi ere, eskakizuna betetzen bada, etete hori bidezkoa izango da jakinarazpena egin eta benetan bete arte igarotzen den tarte horretan.

Kasu honetan, frogaren eskakizuna betetzeko hilabeteko epea eman bazitzaion ere, espedientean sartutako batek –Aldundiak– ez zuen erabat bete abuztuaren 13an (emandako hilabeteko epearen azken eguna), eta modu eraginkorrean bete zuen 2015eko abuztuaren 26an. Egun horretatik aurrera kendu zen etetea eta prozedura ebazteko gehienezko beste epe bat ezarri zen.

Alegazioak bezala, etetea abuztuaren 13an kendu behar zela eta Aldundiak ondoren igorritako dokumentuak besterik gabe espedientean gaineratu behar zirela, izapidearen edozein unetan jasotako beste edozein dokumentu bezala, eta ez espedientean daudenean eskatutako frogaren gisa (instruktoeei jardunbide hori onartuta) ulertzeak esan nahi du ez jakitea zer esan nahi duen "modu eraginkorrean betetzea" esapideak eta edozein agiriren harrera soil batekin parekatzea, agiri hori osatuta edo erabat osatu gabe dagoen edota egin den eskakizunarekin lotura duen edo ez kontuan hartu gabe.

D. Akats materialak

56. Guardiako Udalak alegatu du ebazpen-proposamena baliogabea dela, espedientean dagoen pertsona horrek adierazitakoan barne-kontraesan sailketekin daudelako espedientearen xede diren bi jokabideren preskripzioari dagokionez, bere ustez ezin baita baieztatu jokabide batean edo bietan preskripzioa hauteman eta proposatzen denik.

Ondorioz, espedientearen izapidetu dutenek LEK honi igorritako txostenean eskatu dute, espedientearekin batera, ebazpen-proposamenean aurkitutako akats materiala zuzentzea. Beraz, honako hau dioen lekuan:

Guardiako Udalarik dagokionez, iraungitzaletzat jotzen da 2013ko urriaren 22an eginiko gomendioari dagokion erantzukizuna, hain zuzen, "Guardiako (Araba) hirigune historikoan zoladura jartzeko eta azpiegiturak egiteko proiektua (2. fasea)" idazteko, obrak gauzatzeko eta zuzentzeko eta horiek egin ahal izateko beharrezkoak diren lanak kontratatzeko.

Hau esan behar du:

Guardiako Udalarik dagokionez, iraungitzaletzat jotzen da 2010eko azaroaren 4an eginiko gomendioari dagokion erantzukizuna, hain zuzen, "Guardiako futbol-zelaia egokitzeko proiektua (2. fasea)" idazteko, obrak gauzatzeko eta zuzentzeko.



Akats material hori ezin da erabili ebazpen-proposamenaren kontra egiteko; izan ere, begi-bistakoa da C epigrafean "Arau-hausteen preskripzio posiblea aztertzea" ezartzen dela jakinarazpena jaso **aurreko bi urteetan** egin diren gomendio guztiak preskribatuta egongo liratekeela, beraz, 2010. urtean eginiko gomendioa besterik ez litzateke preskribatuta egongo, eta, inola ere ez, 2013koa, aipatu proposamenaren 36. eta 45. orrialdeetan baieztatu den bezala.

57. Bestalde, Bastidako Udalak alegatu du –gertaerak zehazteko pleguari eginiko alegazioetan egin zuen bezalaxe– espedientetik kanpo geratu zela 2014ko martxoaren 31ko abiarazteko ebazpenaren lehen ebazpenean.

Hala, adierazi behar da, ebazpen-proposamenarekin bat etorritik, abiarazteko ebazpenak izenburu hau zuela:

“2014KO MARTXOAREN 31KO EBAZPENA, IKERKETA ZUZENDARIARENA, HONAKO HAUEI ZEHAPEN-ESPEDIENTEA IREKITZEKO: ARABAKO FORU ALDUNDIA, AÑANAKO UDALA, ARAMAIOKO UDALA, ARTZINIEGAKO UDALA, BARRUNDIAKO UDALA, **BASTIDAKO UDALA**, LAGUARDIAKO UDALA, LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA, MOREDA ARABAKO UDALA, NAVARIDASKO UDALA, PEÑACERRADA-URIZAHARRAKO UDALA SAMANIEGOKO UDALA, ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, ARGOMANIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, LARRINBEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, OLABARRIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, QUINTANILLA DE LA RIBERAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA, DURRUMA KANPEZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA SANTIATURUTZEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA ETA ARABAKO LANAK, S.A.”

Beraz, ebazpenaren lehen puntuan akats materiala egin zen Bastidako Udala ez zelako aipatu espedientean sartutako zerrendan, baina ebazpenaren izenburuak nahiz espedientean sartutako interesdun guztiei eginiko jakinarazpenak –espedientean dauden pertsonak, salazailarekin eta MLBNrekin batera– argi uzten du udal hori espedientean sartuta dagoela.

2014ko apirilaren 7an igorri zitzairen interesdun guztiei espedientean sartzeko ebazpen horren jakinarazpena. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren hitzez hitzeko kopiarekin batera, honako hau jakinarazi zitzairen interesdunei:

a) Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, izapide-egintza delako eta ez dituelako betetzen LDLaren 47. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Nolanahi ere, balizko aurkakotasuna alegatu ahal izango da prozedura amaiera emango dion ebazpenean kontuan hartzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (HAAJAPE) 107.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

b) HAAJAPEn 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, errekusazioa bultzatu ahal izango dute instruktore eta instrukzio-idazkari izendatutako pertsonen aurka prozedura izapidetzeko edozein unetan, betiere lege horren 28. artikuluan aurreikusitako kasuetan.



c) egokitzen jotzen diren alegazioak aurkezteko duen eskubidea alde batera utzi gabe, espedienteak ikusi ahal izango dute, HAAJAPEn 35. artikulua arabera. Espedienterako sarbidea izan nahi badute, eskatu egin beharko dute, eta lkerketa Zuzendaritzak jakinaraziko die hura ikusteko eguna eta ordua.

d) zehapen-prozedura honi amaiera ematen dion ebazpena agintzeko eta jakinarazteko gehienezko epea hamazortzi hilabetekoa izango da, abiarazteko ebazpena ematen denetik aurrera zenbatzen hasita, LDLaren 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, espedientearen daudenei, eta, jakina, Bastidako Udalari, amaierako paragrafo hau gaineratu zitzaizen eta aurkeztutako salaketa erantsi zitzaizen:

Horrez gain, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, idazki honen bidez, aurkeztutako salaketaren kopia igortzen zaizue³³.

Jakinarazpen hori 2014ko apirilaren 8an jaso zuen Udalak, eta 2015eko ekainaren 29ra arte ez zuen horren inguruko aurkakorik adierazi.

Bastidako Udalak adierazi du jakinarazpen horiek guztiak espedientearen interesdun gisa jaso zituela, eta ez espedientearen dagoen udal gisa. Hori esateko, "espedientearen atariko fasean informazioa eskatuko zitzaioala" hartu du oinarri.

Nolanahi ere, ez dagokio baieztapen hori onartzea, abiarazteko ebazpenaren hirugarren zenbakian honako hau ezarri zelako:

Interesduntzat jotzea, zehapen-prozeduraren baitan, **zehapenean aurkaratutako pertsona juridikoak**, baita beste hauek ere:

- EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA.
- MERKATU ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA.

Horrenbestez, Bastidako Udala espediente honetan interesdun izan ez bada, bertan aurkaratutako pertsona juridikoetako bat delako izan da, eta halako trataera izan du izapide osoan, horren inguruan besterik adierazi gabe, gertaerak zehazteko pleguari eta ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko unera iritsi arte.

6. Zehapenaren zenbatekoa ezartzea

58. LDLaren 63. artikuluaekin bat etorritik, enpresa arau-hauslearen negozio-bolumen osoaren ehuneko 5eko isuna jaso ahal izango dute arau-hauste

³³ "2. Espedienteak abiarazteko erabakia interesduneri jakinaraziko zaie, eta salatutako salaketaren kopia igorriko zaie."



astunengatik, isuna jarri aurreko ekitaldian³⁴. Negozioen bolumena mugatu ezin bada, arau-hauste astunengatik 500.001etik 10 milioi eurorainoko isunak jarri ahal izango dira.

59. LDLaren 64. artikulua arabera, zehapenen zenbatekoa, besteak beste, irizpide hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea merkatuan izan duen eraginaren dimentsioa eta ezaugarriak, enpresa arduradunaren edo arduradunen merkatu-kuota, arau-haustearen irismena eta iraupena, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideetan eta legezko interesetan edota beste operadore ekonomiko batzuetan izan duen eragina, arau-haustearen ondorioz lortutako legez kanpoko etekinak eta enpresa arduradun bakoitzarekin lotutako egoera larrigarriak eta aringarriak.

Akordio honek eragin negatiboa du, eta egiaztatuta geratu da, adierazi bezala, jardunbide horrek balio-galera dakarrelako interes orokorrean.

Lehiakide ez direnen artean eginiko akordio horrek bi urteko iraupena izan du, 2012ko azaroan sartu baitzen indarrean. Horrek ekarri du eraginpean dauden zerbitzuen merkatuan Arabako Lanak toki-erakundeen gomendioetarako erabiltzen duen (profesionalei zerbitzu horiengatik lehiatzeko aukerarik eman gabe) kopuruaren baliokidearen gutxieneko zenbatekoa kentzea (obraren esleipen-balioaren % 6 kalkulatuta, 300.000 € baino zertxobait gehiagoko kopurua lortzen da). Akordioa martxan jartzeak ekarri du kontratazio publikoaren lehia orokorraren interes orokorretarako abantailak egiaztatzea ezinezkoa izatea.

Hain justu, interes orokorra babesteko, kasu honetan garrantzitsuagoa da aditzera ematea arau-haustea egon dela, hura geraraztea eta gerora begira zehapenik ez jartzea, horiek, edozein kasutan, funts publikoen bidez ordainduko dira eta.

Hori dela eta, LEK honek uste du egokia dela espediente honen eraginpean dauden guztiei ezartzea euren jardunbidea gerarazteko betebeharra eta gerora begira ez gauzatzeko betebeharra, bai eta, hala badagokio, isun sinbolikoak jartzea ere³⁵.

60. Hori dela eta, LEK honek uste du zehapen hauek jartzea bidezkoa dela:

³⁴ 2015eko urtarrilaren 29ko JAE, lehiaren esparruko isunak kalkulatzeko metodoa aztertzen duena.

³⁵ LEKen ebazpenak, 2012ko martxoaren 27koa. S/0197/09 esp. Segurtasun Hitzarmena eta 2012ko abenduaren 14koa. S/0352/11 esp. Zuzentzaileen Batasuna.



- ARABAKO FORU ALDUNDIAren kasuan –Arabako Lanak sozietatearen akziodun bakarra da, eta bere akzioen ehuneko bat toki-erakundeei (hala nahi dutenei) ematen die, sozietate publiko horren bidez obra publikoak egin ditzaten–, 50.000 €-ko isuna.
- Arabako Lanak SAren kasuan –gomendioaren erabileraren onuradun nagusia, berezko bitartekotzat jo ezin diren toki-erakundeek eginiko kudeaketa-gomendioak gauzatzeko dituen–, 15.000 €-ko isuna.
- Udal eta Administrazio Batzarren kasuan –kudeaketa-gomendia egin zuten foru-organoaren gonbidapenean oinarrituta eta Arabako Lanak sozietateak legezko eta jurisprudentziako betekizunak betetzen zituen edo ez aintzat hartu gabe, euren berezko bitartekotzat jotzeko– ez da isunik jarri.

V. EBATZI DU

LEHENENGOA.- Espediente honetan LDLaren 1.1.a) artikulua arau-haustea egiaztatuta geratu dela aitortzea. Honako hauek dute arau-hauste horren erantzukizuna: Arabako Foru Aldundia, Arabako Lanak SA, Añanako Udala, Aramaioko Udala, Barrundiako Udala, Bastidako Udala, Guardiako Udala, Lapuebla de Labarcako Udala, Moreda Arabako Udala, Navaridasko Udala, Peñacerrada-Urizaharrako Udala, Samaniegoko Udala, Antoñanako Administrazio Batzarra, Argomanizko Administrazio Batzarra, Larrinbiko Administrazio Batzarra, Olabarriko Administrazio Batzarra, Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra.

BIGARRENA.- Artziniegako Udalari, Navarreteko Administrazio Batzarrari eta Quintanilla de la Riberako Administrazio Batzarrari dagokienez, LDLaren arau-haustea egiaztatu ez dela aitortzea, egindako jarduketak lehiaren aurkakotzat jotzeko akordioa ezarri baino lehenagokoak direlako.

HIRUGARRENA.- Guardiako Udalari dagokionez, LDLaren arau-haustea egiaztatu ez dela aitortzea, zehazki 2010eko azaroaren 4an eginiko gomendioarekin lotuta, "Guardiako futbol-zelaia egokitzeko proiektua. 2. fasea" idazteko eta obrak egiteko eta zuzentzeko; izan ere, lehiaren aurkakotzat jotzeko akordioa ezarri baino lehen egin baitzen.

LAUGARRENA.- LDLaren arau-haustea ez egiaztatutzat jotzea Lapuebla de Labarcako Udalari dagokionez, hain zuzen, 2012ko maiatzaren 9an eginiko gomendioari dagokionez, hau da, "Lapuebla de Labarcako ikastolatik Poveda etorbideraino saneamendu-sarea lotzea" obrak kontratatze eta gauzatzeko,



bai eta horien zuzentzeko lanak ere, lehiaren aurkakotzat jotzen den akordioa hartu baino lehen egin delako.

BOSGARRENA.- Zehapen hauek jartzea:

- Arabako Foru Aldundiari zehapen-isuna, 50.000 eurokoa.
- Arabako Lanak SAri zehapen-isuna, 15.000 eurokoa.
- Añanako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Aramaioko Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Barrundiako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Bastidako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Guardiako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Lapuebla de Labarcako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Moreda Arabako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Navaridasko Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Peñacerrada-Urizaharrako Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Samaniegoko Udalari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Antoñanako Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Argomanizko Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Larrinbeko Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Olabarriko Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.
- Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari zehapen-isuna, 0 eurokoa.

SEIGARRENA.- Agintzea zehapena jaso duten pertsona juridikoei arau-haustea dakarten jokabideak eta xede berbera duten edo ondorio berbera dakarten jokabideak eteteko.

ZAZPIGARRENA.- Agintzea zehapena jaso duten pertsona juridikoei Ikerketa Zuzendaritza honetan justifika dezala ezarritako zehapen-isuna gauzatu dela.

ZORTZIGARRENA.- LEAren Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela begira dezan.

Ebazpenaren berri eman bekio alderdi interesdunari adieraziz bide administratiboari amaiera eman diola eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia



Auzitegi Gorenaren (TSJPV-EAEAN) Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean bi hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita.